

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2018-11-16 OSTIRALA / 663. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



*Bat lortuta...
... bigarrenaren zain!*



Bi urte preso

Helegitearen zain daudela, hausnarketa jardunaldiak antolatu dituzte Iruñean gaur eta bihar / 9



El Salvadorko abortu legea eta horrek emakumezkoengan duen eraginaren berri Pascuaren bidez / 2-3

Hezkuntza Kontseiluaren XXII. Jardunaldietan Sakanako 2 proiektu aurkeztu zituzten / 11

Marcos Beraza Espainiako Enduro Txapelketako Junior Open mailako txapeldunordea da / 16

Emakumeendako pilota eskola martxan dago Altsasun. Izena ematera animatu dituzte neskak / 18

Intxostiapunta gazte gunek berriemaile sarea osatu du, bere eta gazteen artean zubi-lana egiteko / 8

Berriaren aldeko Manez eta Kobreak taldearen kontzertua bihar, 19:30ean, lortia kultur gunean / 23

Karasatorre eta Granizo ariko dira gaur, Irurtzunen, 20:00etan, Izeta VIII. Sariketan / 22



Euskaraldiari ongi etorria egiteko ekitaldiak egingen dira asteburuan hainbat herritan / 5

"Abortuagatik salatua, homizidioagatik espetxeratuak"

ALAZNE PASCUA KAZETARIA

El Salvadorren elkartasun proiektu batean hiru hilabete eman zituen 2017ko udan. Erdialdeko Amerikan abortuagatik salatutako emakumeen egoera latza jaso zuen

Eneida Carreño-Alfredo ALTSASU

Alazne Pascua altsasuarrak 23 urte ditu. Kazetaritza gradua despeditu berri du. Egun lanean ari da, dirua aurrezten, master bat ikasi nahi duelako. 2017ko udan El Salvadorko Suchitoto herrian egon zen, hiru hilabetez. Euskal Herriko Unibertsitateko Gaztenpatia programaren bidez joan zen, boluntario gisa eta praktikak egiteko. Emakumeak laguntzeko proiektu batean aritu zen Pascua, Colectiva Feminista (CF) erakundearen bidez. Belexe Irratian (FM 107,3 edo www.guaix.eus) hango egonaldia berri eman digu.

Bakarrik joan zinen?

Suchitotora sei ikasle joan ginen: ikus-entzunezko ikasle bat, nazioarteko harremanetako, psikologikoa, arkitekturako bi eta ni kazetaria. Bakoitzak CF-n bere lana zuen, nor bere arloan.

Eta zein zen zure egitekoa?

Lan asko egin genuen. Alde batetik, bideoak eta abar igo behar genituen sare sozialetara, Facebook-eko orrialdean. Gaztenpatia gisa han seiok egiten ari ginaren berri emateko. CF-n

boluntario gisa hainbat lan egin genituen. Alde batetik, uraren giza eskubideari buruzko bideoa egin genuen. Izan ere, Suchitotoko etxeetan ura dago, baina El Salvadorko komunitate askotara ez da ura iristen. Emakumeak dira etxearen zainketaz arduratzen direnak, hiru orduz ibili behar dute ur bila joateko. Plataformako hainbat kide elkarriketatu genituen. Bestetik, eskualdean bi komunikazio tresna daude. Bat, emakumeendako arreta gelak dira. Haietan indarkeria biktima izan diren emakumezkoen laguntza psikologikoa eta juridikoa ematen diete. Erabilgarriak ziren hala ez baloratu, emakumezkoak haietara joaten ziren ala ez, eta, benetan, hartan parte hartzen zuten edo ez aztertu genuen. Bigarrena azokan dauden irratixikiak dira. Azokan dauden emakumeendako dira, goizter esnatzen dira, azokan ematen dute ia egun osoa eta ateratzen direnean hurrengo egunerako gauzak prestatzen ari dira. Ez dute haien eskubideen berri. Eta irratihorien bidez eskubide

horien berri ematen da; esaten zaie bakarrik ez daudela, norbaitek zerbait esaten badie aldamenekoa berarekin dagoela... Azokako irratiei esker emakumezkoek bat egin dute. Lehen bakoitza bere postura saltzera joan eta kitto. Musika ere jartzen zuten, azoka animatzeko.

Programak eraginkorrak dira?

Bai. Unibertsitatearen aukera hau oso interesgarria da: ikasten jarraitzen duzu eta modu profesionalean aritzen zara. Ni han kazetaria nintzen. Aukera hori izatea, gainera, beste herrialde batean, hango kultura ezagutzea eta hori guztia... ikaragarria da! EHU-n ikasten ari diren ikasleak programa horren parte izatera animatzen ditut. Oso interesgarria da eta, niretako esperientzia oso onuragarria izan da.

Programan parte hartzeko baldintza berezirik badago?

Ez. Lankidetzari buruzko ikastaroa egin behar duzu; aste batean hainbat hitzaldi izaten dira. Eta hori eginda joan zaitezke.

Nolakoa zen zure egun bat?

Ni hasieran gehien harritu ninduen zen 04:30ean edo 05:00etan



Alazneren Pentsamenduak blogean entzun daiteke erreportajea. ALAZNE PASCUA



El Salvadorra joandako Gaztenpatia gazteak. ALAZNE PASCUA



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

argitzen zuela. Beraz, jendea oso goiz altxatzen da. Emakumeen lan asko ikusi nuen. CF-n, adibidez, 40 emakumezko baino gehiagok lan egiten zuten. Haiek dira uraren giza eskubidea aldarrikatzen ari direnak, ahalduz lantzen dutenak, azokako irratia haiek sortu zuten udalaren diru-laguntzarekin... Borroka hori beraiek hasi zuten. Esaterako, psikologiako ikaslea askotan ikastetxeetara joaten zen. Askotan berarekin joan nintzen, haurrekin eta gazteekin zer egiten zuten ikustera eta txikitatik informazioa zabaltzen hasten direla ikusi nuen: anti-sorgailuei buruzko azalpenak; heterosexuala edo homosexuala izatea; genero indarkeria, LGT-BI... Uste dut interesgarria dela gai horiek txikitatik lantzen hastea. Beti baztertuak izan diren gaiak dira, edo horiei buruz ez da asko hitz egiten. Gaur egun mundua oso kulturartekoa da eta mota askotako pertsonak gaude. Txikitatik hori jakitea: gurasoek ez dutela aita eta ama izan behar, aita-aita edo ama-ama izan daitezkeela.

El Salvador horretarako prest dago? Nik uste dut hastapenetan dagoela. Borroka handia dago. Oso gizarte fededuna da. Erlijioa oso sartuta dago. Hori izan da abortuarena pixka bat zapaltzen duena. Abortuari buruz asko ezagutu genuen lehen asteetan gazte baten epaiketara joan ginelako. Gazte genero indarkeriaren biktima da, bortxatuta, mehatxatuta (zerbait esaten baduzu zure ama hilko dut)... Ez zekien haurdun zegoela, hilerokoa zuen. Hango komunak lurrean egindako zulo bat dira. Gaizki sentitzen zen. Amak neska lurrean botata opatu zuen, konorterik gabe, odolatan. Kezkatuta ospitalera eramane zuen. Ospitaleak berak abortua praktikatzegatik salatu zuen. Horrek zirrara handia egin zidan.

Nolakoa da hango abortu legea?

Mundu guztian abortua legez kanpokoa den bost herrialde daude eta El Salvador horietako bat da. Legeak esaten du abortatzen duenak edo abortatzen laguntzen duenak 2 eta 8 urte arteko espetxe zigorra dutela. Emakumezkoak abortuagatik salatzen dituzte, baina homizidiotatik sartzen dituzte kartzelan. Gazte horri 30 urteko espetxe zigorra ezarri zioten 2017an. Zorionez, gazte horren zigorra



El Salvadorko emakumeen sinadura bilkera. ALAZNE PASCUA

berraztertu dute eta kalera aterako da.

Eta bortxatzaileak zer?

Beti errugabetasun-presuntzioa dute eta ez dira kartzelara joaten. Eta joaten badira, kalean denbora asko pasa ondoren. Baina emakumezkoak hasieratik kartzelara epaia atera arte. Hura aldekoa edo ez, kartzelan egon dira epe horretan. El Salvadorko emakumezkoendako bidegabekeria da horregatik kartzelan egotea. Guztia konstituzioko artikulua batean du jatorria, esaten du enbrioia pertsona dela. Beste batean dio pertsonen aurka egiteak zigorrak dituela. Horretan oinarritzen dira: pertsona bat zen eta hura hiltzen saiatu dira. Nik bidegabekeria ikusi nuen. Gradu akaberako lana prestatzeko pixka bat sakontzea erabaki nuen eta El Salvadorko abortu legeari buruzko irratierreportajea izan da.

Legedia aldatu nahi duenik bada?

Bai. 2014an konturatu ziren 129 emakumezko abortuagatik preso zeudela. Haietatik 14k 30 eta 50 urte arteko espetxe zigorra zuten. Arazo bat daukagu: abortua legez kanpokoa da. Baina arrazoibide horrekin zigor handiagoak jartzen dituzte. Zer egin dezakegu? 17 indultu eskaera aurkeztu zituzten, emakume horien askatasuna aldarrikatzeko. *Las 17* mugimendua sortu zen, egoera horretan 17 zirelako momentu horretan. Jabetu ziren preso zeuden emakumezko gehie-

nak antzeko ezaugarriak zituztela: emakumezkoa, genero-indarkeriaren biktimak, baliabide gutxi zituzten... Kontua da El Salvadorren dirua duen emakumea abortatzera kanpora joaten dela. Ez du inongo arazorik. Gehienek ez dute dirurik ezta halako aukerarik ere. Kasu askotan ez dute abortatzea nahi. Euren pentsaera da: bortxaketa baten ondoren haurdun gelditu naiz, baina nire semea da, hor bizi bat daukat eta aurrera jarraituko dut. Kartzelan egon ginen ere eta emakumezkoek

esaten ziguten: gaur egun lehen asteetan abortatzeko metodo asko daude, ez umea jaio denean. Kasu gehienak ospitaletik kanpoko erditzeak dira. Erditzera-koan zailtasunak izaten dituzte: konortea galdu, ez daude osasun zentroetan, eta konortea galdua dutela haurrak hiltzen dira. **Eskuetatik ihes egiten dien egoera** Hori da. Emakumezkoen askatasuna aldarrikatzeko mugimendua hori sortu zen. Pixkanaka emakumezko gehiago preso sartu dituzte eta orain izena aldatu diote: *Las 17 y más*. Astelehenean Imeldaren epaiketa egin zen. Evelynen kasuko ia elementu guztiak ditu. Desberdintasuna da bere aita-ordeak eragindako genero-indarkeria pairatu duela: 12 urterekin bortxatu zuen aurrenekoz, ezer ez esateko mehatxatu zuen, beldurra, urruntzeko bikotekidea lortzen saiatu zen. Baina, azkenean, haurdun gelditu zen. Ez zekien haurdun zegoela, erditzean zailtasunak, ospitalera eta haurra, gaur egun, bizirik dago. Hori da kasu honetan zirrara eragiten duena. Besteek haurra galdu zuten, baina Imeldaren haurra bizirik dago eta bere amonarekin dago. Zergatik darama Imeldak ia urte bat kartzelan bere haurra bizirik badago? Hiltzen saiatu zela esaten dute. Zailtasunak berriro. Nik uste berez haurra amarekin egon beharko lukeela. El Salvadorren eta leku askotan hori gertatzea ez da bidezkoa.

Gaztenpatia programa

Haren helburu nagusia da elkartasuna eta enpatia sustatzea Euskadiko, Nikaraguako, Guatemalako, El Salvadorko eta Saharako gazteen artean. Sormena eta ekintzailtza soziala baliatuz, ikasleek hainbat jarduerak landuko dituzte. EHUK eta Euskal Fondoak sustatzen dute. "Ni Sevillan ikasi dut eta han ez dute halako aukerarik. Hara joateko diru-laguntza ematen dizute. Uste dut aprobetxagarria dela eta ikasle sakandarrak aukera hori baliatzera gonbidatzen ditut".

Badago hor borrokatzeko bidea.

El Salvadorko feministak gehien borrokatu dutena 133. artikulua den erreforma da. Badakite oso zaila dela abortua despenalizatzea. Erlijioa, gehienak gizonetzkoak diren gobernuak... Hori ez lortzeko presio handia, botere handia dago. Haiek lau kausagatik abortua ez zigortzea lortu nahi dute: emakumezkoen osasuna arriskuan dagoenean, haurdunaldia indarkeriaren emaitza bada... Eta pixka bat lortu dute: diputatu asko horretan sartu dira eta laguntzen ari dira. Hauteskundeak dira. Arena alderdiak (eskuina) guztiz kontrakoak nahi du: abortuagatik gaur egungo 2 eta 8 arteko kartzela zigorra 30 eta 50 urtekoagatik ordezkatzeko. Gaur egun emakumezko batzuk zigor hori dute, baina ez abortuagatik, homizidioagatik baiziki. Uste dut ezin gairela isilik gelditu. Honen berri eman beharra dugu. Jendeak ezagutzea eta borrokatzea han lortu nahi dutena lortzeko. **Hasieratik argi zenuen han ikusi eta bizi zenuena, eta zure proiektua, ezagutzera eman behar zenituela?** Bai. Berez, gradu akaberako lana hasieratik hori izan da. Evelynen epaiketara joan ginen. Gero kartzelan egon ginen. Gai horretatik abiatzea erabaki nuen gradu akaberako lanerako. Irrati-erreportaje baterako aukera interesgarria iruditu zitzaidan, beste irratietan emititzeko aukera ematen zuelako, horri buruz hitz egiteko aukera ematen zuelako eta jendea jakiteko. Euskal Herrian honi buruz asko hitz egin da. Esaterako, Picara Magazine asko egon da El Salvadorren, erreportajeak egin ditu. Helburua hori da: jendeak gaia ezagutzea eta bere modura borrokatzea. El Salvadorren geundela hitz egin genuena: hau diziplina arteko borroka da. Ez da bakarrik pertsona bat behar. Behar dira abokatuak, politikariak... denetarik. Gainera, horri buruzko komunikazioa egiteko kazetariak badituzu, bada, askoz hobeto. Batzuetan uste dugu kazetariak ezin dugula mundua aldatu, ezta munduaren aldaketan parte hartu. Baina ez da egia. Kazetari gisa mundua aldatzeko ezinbesteko tresna dugu: komunikazioa. **Hiru hilabete nahikoa izan ziren?** Oso gutxi. Baina besteren batean joateko pentsamendua badut. **Oso rik: www.guaixe.eus**



ASTEKOA

RAF ATXURI

C's-eko legioari galdera zenbait

(2018ko azaroaren 4an domekarekin, Altsasuko plazara "Reconquista" asmoz bertaratu ziren espainiar zale sutsuei Altsasuko herriaz): Non dago Olatzagutia? Zer da Urbasa? Zergatik hainbat emakumek daukate Erkuden izena? Zer dira Ibarrea, Isasia eta Ondarria? Zer harreman du Zumalakarregik Altsasurekin? Nor da Emilio Boulandier? Noiz egiten da kintoen ospakizuna? Zer da "jasaile"? Nor da Camino Mendiluze? Zer dira Alzania eta Burunda? AEK-k ba ote du egoitzarik Altsasun? Nola deitzen da herriko eskola? Zein zuhaitz dago Foru plazan? Norena da San Pedroko basiliza, Altsasukoena edo Urdiaingoena? Zein kiroletan aritzen da Naiara Diez? Zer da Guaixe? Kaputxinoena non dago? Nola deitzen da herriko pilotalekua? Zer da "txapiskol" deritzana? Zein arrainek kantatzen die Zangitura joaten ziren arrantzaleei? Non dago Ataun? Zer da Garraxi? Non dago tren geltokia? Egia da inauteriak hiru aldiz ospatzen direla urtean zehar? Non daude institutua eta herriko ikastola? Castillo Suarezek zer idazten du? Nor izan zen Jose Manuel Goikoetxea?

ZERGATIK EZ DUZUE IKUSTEN, ZERGATIK EZ DUZUE IKASTEN? ZERGATIK EZ DUZUE ENTZUTEN?

Zer saltzen dute Bergeraenean? Enrike Zelaiak zer jotzen du? Zerk egiten du berezi Mainamikirri? Nor izan zen Constantino Salinas? Noiz eta non dantzatzen da Altsasuko zortzikoa? Zer da

Trasteando, zer Tarima Beltza? Nor da López? Zer dira Txuspo Poyo eta Dora Salazar? Zer da "La Encina"? Nor izan zen Marino Aierra? Egia da Himmler nazien burua Altsasun egon zela? Zer dira "Los del Rayo"? Momotxorroak urtero ateratzen dira? Nor izan zen Emilio Eguzkiza?

Eta azkenik baina ez inola ere hutsenik: Zergatik ez duzue ikusten, zergatik ez duzue ikasten? Zergatik ez duzue entzuten? Zergatik ez diozue bake pixka ematen munduari?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoko: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Azaroak 3-4 egunetako balorazioa

JOSE ANTONIO DONLO BECERRIL, SAIQA ERRO GONZALEZ, NEKANE ZUBIZARRETA ARENAZA, ARANTZA BENGOTXEA INSAUSTI, JUAN CRUZ BENGOTXEA SAEZ DE MATURANA ETA IÑAKI URRESTARAZU ZABALO.

ALTSASUKO HERRI BATZARRAREN IZENEAN Berrito Altsasuko herriaz harro gaudela esan behar dugu. Azken urteetan askotan egin bezala, probokazio, kolpe eta desinformazioen aurrean herri duin, batu eta eredugarria garelako erakutsi dugu. Haiek nahi zuten jokoan sartu gabe, baina gure aldarri eta usteak argi utzi probokatzea eta interes zitalak besterik ez zituztenen aurrean.

Asanbladatik eskerrak eman nahi dizkiegu erantzuna posible egiten lagundu diguzuenoi. 4 egunetan 10.600 laguneko manifestazioa eta elkartasun eta aldarriz beteriko ekitaldia antolatu genituen. Mila esker bai Altsasutik, Euskal Herritik eta penintsulatik etorri zineten guztioi, gurekin batera Altsasu bakean utzi dezatela aldarrikatzeko. Askotan eskatu dugu laguntza eta, orain arte, beti jaso dugu, espero baino gehiago. Ez dugu inoiz ahaztuko.

Larunbatean gure herriko kaleak hartu genituen, aldarri simple eta argi batekin: Utzi Altsasu bakean! Foruen plaza ultra-nazionalismo espainiarrak, faxistek, probokazioek, matxistek eta arrazistek hartzen zuten bitartean Iortia berdintasunaren, justiziaren,

elkartasunaren eta eskubideen gunea bihurtu genuen. Han parte hartu zuten sortzaile guztiei eta milaka pertsonen gure eskerrak beroenak.

Ez ziren aste errazak izan aurrekoak. Alderdi ultra-eskuindar eta haien komunikabideek eragiten zuten presioaz gain, herri anitza izanik, iritzi eta proposamen ezberdinak kudeatu behar izan genituen oso denbora gutxian. Baina gure herriak eman zuen erantzunarekin oso pozik gaude. Probokatzaileen aldetik beste mota bateko erantzunak bilatzeko lan itzela izan bazen ere, herriaren erantzuna parametro egokietan garatu zen.

Herriarekiko desinformazio eta manipulazio kanpainak aurrera jarraitu du aste honetan. Denok ikusi ahal izan genuen Altsasun asteburuan gertatu zena eta argi daukagu zer erakusten duten irudiek: herri oso bat bakean uzteko eskatzen. Justizia aldarrikatzen jarraituko dugu eta ez ditugu onartuko probokatzaile eta faxistak, aske bizi nahi baitugu.

Osorik: www.guaixe.eus

Itzaleko txikizioen aurrean

GARAZI BARANDALLA HAIMAR IRIARTE AXI ESTARRIAGA

ITZALETIK ARGIRA; HODEI ETXIEN HERRI EKIMENEN ANTOLATZAILEEN IZENEAN

Itzaleko mamuak dira errepresioa, kartzela,

gorrotoa, mendekua, dispertsioa, isolamendua, zigorra, jazarpena, xantaia.... Itzalaren ikara erabiltzen dute Euskal Herriaren etsaiek herriaren askatasun egarria itotzeko, etsipena hedatu eta mendetako ukazioa betikotzeko. Itzalaren iluntasunari argia eman dio askapen borrokak belaualdiz belaualdi. Argia ekarri dutenak maitasuna, elkartasuna, auzolana, sormena, errebeldia, duintasuna... dira.

Hamar urte muturreko baldintzetan gatibu mantenduta itzali nahi izan dute Hodei Ijurko gaztearen argia; bera itzalita Etxarri Aranatz eta Euskal Herrian iluntasunak eremuak irabaziko zituelakoan. Pizturik itzuli zen ordea Hodeiren argia Etxarrira irailaren 20an Etxarrira; berak ekarritako txinpartak egundoko distiraldia eragin baitu gure herriko bizitzan. Hodeik eman digunaren zati bat bederen itzultzeko antolatu genituen larunbatean herri bazkaria eta kontzertuak. Denak auzolanean: Hodeiren lagunak, Gazte Asanblada, herriko musikariak, sukaldari boluntarioak, Udaberri eta Karriestu elkarteak... Egun borobila atera zen, emozioz eta maitasunez beterikoa, Hodeik eta bere familiak merezi duten tamainakoa.

Gaueko itzalean ezkutatu Etxarriko herriaren ondasunetan txikizioak egin dituzuenoi: zuen "graziak" ez du puta graziarik egiten; ez duzue ezer ulertu.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Euskaraldiaren aurkezpena Irurtzungo Pikuxar elkartearen. PIKUXAR

Euskaraldiari ongi etorri ekitaldiak antolatuta

Izena eman duten sakandarrei txapak banatzeko ekitaldiak egingen dira asteburuan Irurtzunen, Uharte Arakilen, Lakuntzan, Lizarragan, Urdiainen eta Altsasun. Herrietako Euskaraldia taldeetatik izena ematera gonbidatu dute

SAKANA

Aste bat falta da. Azaroaren 23an, aste bat barru, Euskaraldia hasiko da. Abenduaren 3rairako iraunen duena. Hizkuntza portaerak aldatzeko borondatezko ariketa indibiduala da. Indibiduala bai, baina aldi berean kolektiboa. Izan ere, 11 egun horietan euren hizkuntza ohi-turak aldatzeko konpromisoa hartu dute. Pertsonen arteko euskarazko komunikazioari bultzada eman nahi dio ariketa horrek. Horretarako, Ahobizi rola hartzen dutenei ahal duten guztietan euskaraz hitz egiteko eskatu zaie. Belarriprest izatea erabaki duten pertsonak, berriz, Ahobizien inguruan sarea osa-

tuko dute eta erraztasunak ematen diete haiekin euskaraz hitz egin nahi dutenei. Modu horretan lehen gaztelaniaz ziren elkarriketak euskaraz izanen dira. Kanean, lantokietan eta toki publikoetan euskara gehiago entzunen da, eta horrek erabilera handitzeko bultzada izanen da. Bi rolek, bai Ahobizik, bai Belarriprestek, euskararekiko jarrera bat eskatzen dute. Bi rolek garrantzia bera dute.

Hori guztia ederki azaldu izan dute Sakanan barna eratu diren Euskaraldia taldeetako kideek. Edo www.euskaraldia.eus web orria bisitatu dutenek. Euskaraldia Ahobiziak eta Belarriprestak identifikatzeko txapa

ezinbestekoa da eta asteburu honetan hainbat herritan egingen diren ekitaldietan banatuko dira. Irurtzunen iganderako jarri dute hitzordua. 12:30ean kalejira egingen dute herrian barna **Irurtzungo** gaitariekin, txistulariekin, trikitilarekin eta pertsonaia mitologikoekin. 13:00etan plaza iritsiko dira eta han txapak banatuko dituzte. Oraindik izena eman ez duenak horretarako aukera izanen du eta materiala salduko da. Guztia musikaz eta Piku TBko aktoreek girotuko dute. Despeditzeko, 13:30ean, Irurtzungo Ahobizi eta Belarriprest guztien talde argazkia egingen dute eta zizka-mizka izanen da.

Uharte Arakilen gaur dute hitzordua, 19:00etatik aurrera udaletxe atean. Handik pasatzen direnek Euskaraldian izena emateko aukera izanen dute. Baita txapak jasotzeko ere. Gainera, pintxo-pote berezia antolatu dute, bi eurotan izanen dena. **Lizarragan** Euskaraldiko taldekoek Azi-Iturri elkartera igandean joateko eskatu dute, 17:00etan. Txapak banatuko dituzte, txokolate-janaz goxatuta. **Urdiainen** gaur, 19:30etik aurrera herriaren etxe ondoan jarriko dira Euskaraldiko taldekoak. Informazio mahaia jarriko dute eta zalantzak dituztenak han argitzeko aukera izanen dute. Eta, jakina, izena emateko ere. Hala egin dutenek txapak jasotzeko aukera izanen dute. Gaur joaterik ez duen urdiaindarrik baldin badago, astelehenetik informazioa eta dagokion txapa goizez herriaren etxeko bulegoan eta arratsaldean liburutegian jaso ditzake.

Altsasuko Euskaraldiko taldeak hitzordu bikoitza du astebururako. Lehenik, Ahobizi eta Belarriprest gisa izena eman dutenendako hitzordua jarri dute. Gaur, 19:00etatik 20:00etara, Gure Etxea eraikinean rol bakoitzari buruzko azalpenak ematen dituzte. Domekan, berriz, Euskaraldiari ongi etorria emateko ekitaldia egingen da 13:00etan Gure Etxea eraikinean. Pantxika Lamurrek aurkeztutako ekitaldian hainbat sorpresa izanen dira. Gainera, izena eman edota txapak jasotzeko aukera izanen da, baita auzatea ere.

Sakanako gainontzeko herrietan sortutako Euskaraldia taldeak izenak jasotzen segitzen dute eta azken momentura arte ez itxaroteko gonbidapena egin dute.

Sakanarako LTD mugaketa eskatu du gobernuak

Ibarrerako Lurreko Telebista Digital mugaketa eskatu du Madrilen foru gobernuak

SAKANA

Ana Ollo Herritar eta Erakunde Harremanetarako kontseilaria Informazioaren eta Agenda Digitalaren Sozietaterako estatu-idazkariarekin, Francisco Polorekin, bildu zen astelehenean. Bilkura horretan Nafarroako espektro erradioelektrikoaren antolaketa izan zuten hizketagai. Hau da, Lurreko Telebista Digitalen (LTD) mugaketak eta irrati lizentziak. Ollok Polori eskatu zion Nafarroan bi LTD mugaketa berri egiteko: bata Baztan-Bidasoan eta bestea Sakanan. Kontseilariak azaldu zuenez, udalek Nafarroako Gobernuari egindako eskaerak dira horiek.

Bilera berean Ollo kontseilariak estatu-idazkariari azaldu zion irabazi asmorik gabeko irrati-eteen lizentziak eta FMko irrati-komertzialetarako lizentziak zabaltzeko beharra. "Eskuragai zegoen espazio osoa esleitu dugu kasik, baina bi emisio motetarako eskaerak jasotzen ditugu oraindik", jakinarazi zuen kontseilariak asteleheneko bileran. Azkenik, Nafarroako Gobernuak LTDaren anizkoitz autonomikoaren espazioa optimizatze aldera, kanalak zabaltzeko eskatu zuen.



107.3 FM

beleixe

guaxe.eus-en ON LINE

Denboraldi berria

Saioa 10:00 – 12:00

10:00 Egun on, prentsa eta eguraldia

10:15 Eguneko agenda

10:20 Albistegia

10:45 Eguneko elkarriketak

11:15 Sarea: Esan Erran eta Aralar irrati esatariekin

11:55 Saioren bukaera

Uharteko hirigintza plana berritzeko zati bat despedituta

Parte-hartze prozesuaren bidez Lurraldearen Okupazio Estrategia eta Modeloa zehaztu da

UHARTE ARAKIL

Uharteko Arakilgo hirigintza plana berritzeko parte-hartze prozesuko laugarren bilera egin zen astelehenean. Aurreko hiru urteak auzo bakoitzeko aldamekin egin zituzten eta azken urteak guztiendako izan da. Hartan Lurraldearen Okupazio Estrategia eta Modeloa aurkeztu zuten, hirigintza plana idatzi aurretik egin beharreko agiria. Hartan Uharteko Arakilen lehentasunak, hazkunde eredua, baliabideen aprobetxamendua eta ahulguneak gainditzeko bideak



Uharteko Arakilgo ikuspegia. ARTXIBOA

zehazten dira. Juana Sainz Beldu alkateak esan digunez, Nafarroako Gobernuak Lurralde Antolaketa sailera joan da orain agiria. "Han aztertu eta urte baten bueltan-edo berriro jasoko dugu, okupazio-estrategia zehaztu eta hirigintza plana berria egiteko".

Alkateak 4-6 urte barru hirigintza plana egin egotea espero du. Gaur egun indarrean dagoen planifikazio txostena 1991koa da. Bitartean parte-hartze bilerak "ongi" joan direla azaldu digu. Erredakzio taldeko kideak bileratan izan dira eta heldu diren egunetan arkitektoarekin egoteko aukera izanzen dute herritarrek, "ekarpenak edo kontsulta egiteko". Hala ere, Sainzek gobernuari heldu den astean bidali nahiko lioke txostena.

Energia eraginkortasuna kiroldegira iritsi da

Energia kontsumoa murriztearekin batera argindar faktura txikitzeko eta ingurumena errespetatzeko ahaleginarekin segitzen du Irurtzongo Udalak. Hiru helburu horiek energia eraginkortasuneko udal planaren bidez egin du. Eta hari segituz, kiroldegiko argiteria aldatu eta berriro zuten pasa den hilabete akaberan. Horren ondorioz urteko 19.600 kw eta 2.138 euro aurreztuko ditu.

Irurtzongo Udalaren energia eraginkortasuneko udal plan horren barruan, besteak beste, kultur etxeko argiteria eta udaletxeko eta jubilatuen elkarteko leihoak aldatzeko lanak zehaztuak zeuden aurreko egiteko.

Eztanda Irratiaren urteurren festa asteburuan

Irrati libreak 19 urte betetzen dituela eta egitaraua prestatu du gaurko eta biharko

ITURMENDI

Iturmendiko gazte asanbladatik sortu zen Eztanda Irratia (FM 107,7 edo www.eztanda.com) duela 19 urte. Gaur egun saio propioekin, Eguzki Irratiaren eta Halabedi Irratiaren saioen berremanaldiekin eta musika eskaintzarekin osatzen dute 24 orduko emanaldia. Hala ere, Eztanda Irratiak urte mugitua izan du. Udal baskula zena hartzen zuten eraikin txikian zuten estudioa eta urte hasieran han zuten hozkailuko isolatzaileak su hartu zuten. Tresneria onik atera zuten. Egoki garbitu, baina egunerokoan sutearen arrastoak nabari dira eta zenbait tresna aldatu beharko dituzte. Horregatik, maiatza egunean zozketa baterako txartelak saldu zituzten. Asteburuko ospakizuneko irabaziak ere horretara bideratuko dituzte.

Irrati libreak urteurrena ospatzeko egitaraua prestatu dute gazte asanbladakoek. Horren barruan Sakanako gazte asanbladen jardunaldiko bigarren saioa dago, biharko iragarria dagoena. Langile klasearen definizioaren inguruan hausnartuko dute. Eguna Papawanda eta Brigada Improductiva taldeen doinuekin itxiko da.

Lizarragako ostatu lanak martxan, Aste Santurako mustu

Lizarragako Kontzejuak bultzatuta, medikuarena zen etxea gizarte etxe edo ostatu bihurtzeko lanak martxan dira. Lastailaren erdialdean hasi ziren eta ilbeltzean despeditzea aurreikusten da. Mustu, berriz, Aste Santurako mustu nahi lukete. Beheko solairuan ari dira taberna eta denda jartzeko lanak egiten. "



Ostatu lanak aurrera doaz.

Etxarri Aranazko plazako estalopearen hezurdura ikusgai

Estalope berriko egurrezko egitura jartzen hasi ziren asteartean. Kioskoa eta estalopea biek teiatu bera partekatuko dute eta hari eutsiko dion egitura da Jamsarko langileek jarri dutena. Pixkanaka, beraz, itxura hartzen ari da Etxarri Aranazko plazako estalope berria. Udalaren asmoa litzateke eguberrietako ekitaldietarako estalopea prest egotea.



Egurrezko egitura jartzen.



BAKAIKUKO UDALA

Etorkizuneko Bakaiku zehazten

"Etorkizunean zer-nolako herria nahi dugu?" galderari erantzutera 64 bakaikuar agertu ziren udaletxera larunbatean. Herriaren diagnostika egin zuten. Udaletik jakinarazi digutenez, saioa "giro onean" egin zen. Hurrengo bileran ideia zehatzak eta proposamenak eginen dituzte bakaikuarrek, hilaren 24an izanen da, larunbatekin, 17:30ean, udaletxean.



Irurtzongo sanmartinei agur

Artisau azokan elkartutako 28 salmahairekin, erraldioen eta buruhandien konpartaren urteko azken kalejirarekin, jubilatuen elkarteko bazkari eta dantzaldiarekin eta Iratxo elkarteko mus txapelketarekin (Jose Julian Matxain eta Jesus Dorai irabazleak) despeditu ziren San Martin festak. Bezperan Antonio Ramirezen tiramisú tartak irabazi zuten gozoen lehiaketa.

Egitaraua

Azaroak 16, ostirala

- 19:00 AH Tri buruzko hitzaldia.

Azaroak 17, larunbata

- 11:00 Zer da langile klaseko kide izatea?
- 14:30 Bazkaria.
- 16:00 Eztabaida.
- 19:00 Auzatea, irratiaren.
- 22:00 Afaria.
- 00:00 Kontzertuak.

Ez jolastu suarekin, gozatu harekin

JARRAITU AHOLKU ERRAZ BATZUK SEGURTASUNA
AREAGOTZEKO, ZURE TXIMINIAREN
EROSOTASUNARI UKO EGIN GABE

ERAIKITZEKO EDO BERRITZEKO, PROFESIONALAK KONTRATATU

ALDIZKA MANTENTZE-LANAK EGIN

BEHAR BEZALA ERABILI



www.tximiniak.nafarroa.eus



GOGOAN IZAN: Neurri guztiak hartu arren, kea edo sua ikusten baduzu, deitu berehala 112 telefonora. Deitu ondoren, itzali tximinia eta, zure burua gai ikusten baduzu, saiatu sua itzaltzen suhiltzaileak iristen diren bitartean, baina ez jarri inoiz zure burua arriskuan.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Berriemaileak Blanki Torres gazteria teknikariarekin batera. INTXOSTIAPUNTA

Intxostiapunta gazte txokoak baditu berriemaileak

Gazteak azaroarekin batera hasi dira zeregin horretan eta maiatzera arte ariko dira.

ALTSASU

Zazpi gazte Intxostiapunta gazte guneko berri emaile izateko konpromisoa hartu dute. Hona-koak dira gazte horiek: Sakana Lanbide Heziketa institutuan Ana Belen Padilla Cedeño eta Mara Martis Cerrillo; Iñigo Arizta Ikastolan Izaskun Landa Lasa eta Ainhoa Agirre; Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan Tifaout Ballouk Guourar eta Ixone Rodriguez Sanchez eta Sagrado Corazon ikastetxean Yerai Garcia Alonso.

Gazte horiek DBH 4, Batxilergo edo Lanbide Heziketan matrikulatuta daude eta euren ikaskideei eta lagunei gaztetxokoan antolatutako jardueren berri emateko konpromisoa hartu dute. Horretarako, zazpikotea gazte-gunearekin etengabeko harremanean izanen da, bai begiraleekin edo gazteria teknikariarekin. Haiengandik

informazioa jaso eta inguruko gazteei jakinarazteko, edo aldearantziz. Horretarako, kartelak, bestelako euskarriak eta sare-sozialak erabiliko dituzte. Bestetik, informazio hori ikaste-txeetako gazte informaziorako paneletan jartzen hasi dira. Gainera, ikaskideen kontsultak gutxienez astean behin erantzun behar dituzte.

Berriemaileek honako informazioa hasi dira zabaltzen: Intxostiapuntako gazte agenda, ikastaroak, Sexgune zerbitzua, aretoen mailegua, txartelak, txangoak, telefono interesgarriak, iradokizunak, proposamenak... Zazpi hilabetez izanen dira berriemaile eta hilero hilabeteko jarduna biltzen duen fitxa eta akaberako memoria egin behar dute. Aurten 80 euroko dirusaria jasoko dute, eta 120koa heldu den urtean. Baita diploma ere akaberan.

Gozamenez programako saioak Dorraon eta Altsasun

Sakanako gazteen artean sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural eta aberasgarri batetik lantzeko helburuarekin segitzen du ibarreko Gozamenez batzordeak. Horregatik, astebururako bi hitzordu prestatu ditu. Zentzumenen gauean Altsasuko Haritza tabernan 22:30ean, *Alicate, la gramola del amor* saioa.

Dorraon, berriz, Ergoienako gazteei zuzendutako eskaintza izanen da bihar, 18:00etatik 20:00etara. Gizarte gelan, Matthew Warchusen *Pride* drama eta komedia uztartzen dituen filma ikusteko aukera izanen da. Ondoren, Diana Arbonies Porresek gidatutako zine-foruma izanen da, baita merendua ere.

Altsasun jostailu bilteta eginen da heldu den astean

Etxean erabiltzen dituzten makina bat jostailu dituzte gaur egun haurrek. Jostailu horiei bigarren bizitza eman, haurrei gauzak trukatzeko aukera erakusteko eta, bide batez, kontsumorako beste bide batzuk badaudela jakinarazteko, jostailu trukaketa eginen da Altsasun. Baina trukatu aurretik haiek bildu egin behar dira eta hala eginen dute heldu den astean Altsasuko ikastetxeetan. Etxetik egoera onean dauden jostailuak eramaten dituzten haurrek txartel bat jasoko dute. Eta heldu den ostiralean txartel hori jasotako jostailuetako batengatik trukatzeko aukera izanen du. Ludotekan eginen da trukatzea.



Munduko arroz dastaketa sanmigeletan

Asteazken zapoetsuak iritsi dira Olatzagutira

Sukaldaritza maite dutenek bi plater berri prestatzen ikasteko aukera izanen dute Olatzin. Herrian dagoen kultur aberastunaren isla izanen dira sukaldaritza tailer horiek. Aurrenekoa heldu den asteazkenean izanen da, hilak 21. Orduan Afrika iparraldean jatorria duen kus-kusa (gari semola) prestatzen ikasteko aukera izanen da, gero haragiarekin edo barazkiekin lantzeko. Abenduaren 12an, berriz, Hego Amerikan eta Karibean jaten den sancochoa prestatzen ikasteko aukera izanen da, haragiz, tuberkuluz eta barazkiz egindako zopa bat da.


Asteazken zapoetsuak ekimena Olatzagutiko Udalak eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuak atolatzen dute. Saioak 17:45etik 19:15era izanen dira, Akelarre ludotekan. 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena eta saioko gehienez dozena bat pertsona onartuko dira. Izen ematea udaletxean egin daiteke astelehenera arte, eta 5 euro pagatu behar dira.

Irurtzunen erosiz Irurtzun egin eta bizi mantentzeko kanpaina

Irurtzango merkataritzari ikusgarritasuna eman eta sare horrek irurtzundarrei eskaintzen dien gertuko zerbitzua bizirik mantentzearen garrantzia. Horiek nabarmendu nahi zituen Irurtzango Udalak *Herrian erosiz denok irabazle* kanpainarekin. Trinitate eta San Martin festen aurretik egin da. Bietan Irurtzango 28 dendek parte hartu dute. Haietan erosketak egiten zituztenek zozketa batean sartu ziren eta Irurtzango dendetan gastatzeko txekoa eskuratzeko aukera zuten. Horixe bera lortu dute udazkeneko kanpainan Tere Otxoak, Jose Luis Gonzalezek eta Visi Jakak. Saritan, guztira, 1.400 euro banatu dira.

Merkataritza festa eta gehiago Altsasuko establezimendutan

Denden eta lau tabernen atean hiru koloretako euritako argiztatuek gaztigatzen zuten oinezkoa. Establezimendu horiek Altsasuko Merkataritza festan parte hartzen ari ziren. Eskaintza ugari zeuden haietan eta jendearen jakin-mina piztu zuen. Ostiralean iragartzeko erabilitako aterki horiek Altsasuko Dendarien Elkarteko (ADE) establezimenduetan edozeinen eskura jarri dituzte, euria egitean hartzeko. Bestalde, dendariak gogoratu dute Azarokotea martxan dagoela Sakanako hainbat establezimenduetan, azaroan barna erosketak egiten dituztenek 25 urdaiazpikoren zozketan sartuko direla gogorarazi dute.



MUSUA, PIRRITX PORROTX ETA MARIMOTOTS

SARRERAK SALGAI:
Martxuetan, Pikuxarren eta Estankoan Irurtzunen Maimurren Leitza Geltokin Iruñean

ABENDUAREN 3AN 17:00ETAN IRURTZUNGO KIROLDEGIAN

7€

LAN ESKAINTZA



2018/2019 IKASTURTERAKO ORDEZKAPENA

Andra Mari ikastolak 2018/2019 ikasturterako ondorengo profila duen irakasle baten beharra dauka zaintzaile eta logopediako ordezkapen bat egiteko:

- Lehen hezkuntzako irakasle gradua, Entzumen eta Hizkuntza aipamenarekin, edo titulu baliokidea.
- EGA edo baliokidea.

Interesa izanez gero, curriculumak sartu Andra Mari ikastolako web orrialdeko "Lan Poltsa" atalean (www.andramariikastola.eus) azaroaren 18ra arte.

Altsasuko auziaz hausnartzeko bi egun

Altsasukoak Aske herri plataformak jardunaldiak antolatu ditu Iruñeko Katakarak liburu-dendan gaurko eta biharko. Auziari eragiten dioten bost ardatzen inguruan hausnartzeko dute

ALTSASU

Herenegun bi urte, 731 egun, bete ziren Altsasuko auziagatik Guardia Civilak Altsasun sarekada egin eta hainbat gazte atxilotu zituela. Orduetik preso daude Adur, Jokin eta Oihan. Orduko hartan (37 eguneko espetxealdia) eta gaur duela 163 egun atxilotu zituzten Aratz, Iñaki, Jon Ander eta Julen. Urruntzea eta sakabanaketa ezagutu dituzte. Gaur egun zazpiak Zaballako (Araba) kartzelan daude.

Altsasukoak aske herri-plataforma #AltsasukoakASKE jardunaldiak antolatu ditu gaurko eta biharko. Eneko Mendiluzek zergatia azaldu digu: "orain arte mobilizazioak izan ditugu. Jendea etorri da eta mobilizatu da. Oraingoan, mobilizazioaz aparte, etorkizuneko perspektiba izan nahi dugu, pixka bat jakiteko hemendik aurrerako erantzuna nola bideratu behar dugun". Hausnarketa orain antolatzearen zergatiaz galdetuta, Mendiluzek esan digu "momentua berezia" dela: "bi urte bete dira zazpien atxilotetetik, hilabetera lau askatu zituzten, berriz ere, zazpiak barruan daude, epaiketa pasata eta helegiteen zain. Momentu politikoa, momentu juridikoa desberdina da. Orain beste perspektiba batean koka gaitezke".

Plataformako kideak azaldu duenez, "perspektiba sakonagoan hausnartu nahi dugu, eta egoerari aurre egitea". Horregatik gaurko eta biharko antolatutako egitarauan "mobilizazio hutsa izatea baino, etorkizuneko perspektiba" hori bilatuko dute. Izaskun Etxeberriak azaldu digunez, "auzi honen inguruan ardatz diren bost esparrutako mahai-inguruak" prestatu dituzte. Zergatik bost ardatz horiek eta ez beste batzuk galdetuta, azaldu digunez, "guk, Altsasukoak Aske herri plataformatik,



Jardunaldiak antolatu dituen plataformako kide batzuk.

hasiera-hasieratik argi esan dugu politika-, hedabide-, lege- eta polizia-muntaia baten ondorioz sortutako egoera batean gaude-la". Hori oinarri izanda, "ikusidugu bost puntu horiek oso garrantzitsuak direla jorratzeko, lantzeko eta hausnartzeko".

Saioak

Hausnarketa saioak Nafarroako gazte kolektiboen topaketa batekin abiatuko da. Etxeberriak azaldu digunez, "auziak suposatu duenaz hausnartzeko dute". Segituan, gizarte-eragileen txan-

da izanen da, mahai-inguruan bilduko direnak. "Nafarroan, hasieratik, alde horretatik sentibilizazio handia izan da. Elkartasun izugarria". Larunbat goizean lege-ikuspegia aztertuko dute "izen handiko juristek. Denok jakin badakigu irregulartasun handiak izan direla prozesuan, epaiketan, ondorengo epaian, behin-behineko espetxeratzea... Horien inguruan dituzten lege-argudioak mahai-gainean jarriko dituzte".

Haiei kazetariak hartuko diete lekukoa. "Hedabideek azken

#Altsasukoak ASKE jardunaldiak

Azaroak 16, ostirala

- **18:00** Jardunaldien mustutzea, Gaztelu Plazan.
- **18:00** Atzo, gaur... Bihar zer? Nafarroako gazte kolektibo guztiak gonbidatuta daude topaketara.
- **20:15** Gizarte eragileen mahai-ingurua, Amaia Zufia (BF), Fernando Mendiola (Memoria Bideak), Nerea Fillat (editorea) eta Sabino Cuadra (SF78). Moderatzailea: Juan Kruz Lakasta.
- **22:00** Pintxo-afaria, bideo-emanaldia eta kontzertua, Gaztelu plazan.

Azaroak 17, larunbata

- **09:00** Elkartasun gunearen irekiera.
- **10:30** Lege-arloko mahai-ingurua: Garbiñe Biurrun, Amaia Izko, Soledad Barber eta Olga Rodriguez.
- **12:15** Hedabideei buruzko mahai-ingurua: Martxelo Diaz (Gara), Joxerra Senar (Berria), Danilo Albin (Publico) eta Bea Talegon (Diario 16).
- **17:00** Kontzentrazioa, Gaztelu plazan.
- **18:00** Europako lanketari buruzko mahai-ingurua: Josu Juaristi (EH Bilduko euro-parlamentaria), Xabier Benito (Ahal Duguko euro-parlamentaria), Maite Mola (Europako Ezkerreko Alderdiko lehendakariordea), Joan Tarda eta Gabriel Rufian (ERC) eta Izaskun Bilbao (EAJko euro-parlamentaria, bideoa).

Elkartasun gunea, Gaztelu plaza

Gaur eta bihar herri-plataformaren informazio puntua egonen da. Han elkartasun materiala salgai izanen da, eta plazan auziari buruzko erakusketa eta ziega baten irudikapena.

Jardunaldiak Katakraken izanen dira, Kale Nagusiko 54. zenbakian.

bi urte hauetan auzia nola landu duten aztertuko dute. Hedabideetan asko atera da. Nolako manipulazioa izan den ere ikusi dugu. Komunikabideen lana eta gizartean duten funtzioa aztertuko dute". Despeditzeko, auzia Europan orain arte nola landu den eta aurrera begira zein lanketa egiten den aztertuko dute.

Gaztelu plazan jardunaldiek bestelako oihartzun bat izanen dute. Informazio guneaz eta erakusketat aparta, ziega irudika-

tuko dute. "Hartan sartzeko 24 txanda egin ditugu. Preso daramatzen hilabete bakoitzaren isla izan nahi du. Ordu erdiko txandak izanen dira eta Nafarroako hainbat eskualdeetako jendea sartuko da ziega horretan, txandaka". Bestalde, Altsasukoak Aske herri plataformatik gogorazi dute jardunaldiak direla eta gaur ez dagoela udaletxe parean bilkurarik. Baina bihar, 17:00etan, Gaztelu plazan egiten den elkarretaratzean parte hartzea gonbidatu dute.

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsalde zabalik

Hiru bixiguren zozketa!!!
Azaroan zehar

mariaeugenia
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

Konfiantzako aseguradora orokorra!

MAPFRE
La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

Ezkila-joleendako isunak bertan behera uztea eskatu dute

España Ciudadanaren politika-ekitaldian ezkila-errepika jo zutenei 601 eta 30.000 arteko isuna jarriko diete

ALTSASU

Altsasu Faxismoaren Kontra herri plataformak (AFK) Nafarroako Gobernuari eskatu dio Mozal Legea ez aplikatzeko eta 30.000 euro arteko isuna ez jartzeko azaroaren 4an ezkilak jo zutenei. AFK-koen iritziz, "bitxia da, Mozal Legearen kontra dagoen eta azaroaren 4ko probokazio faxista gaitzetsi zuen gobernu hau prest dago altsasuar batzuei bizia izorratu, legea aplikatu" eta isun handia jartzeko. Haien iritziz, "halako isunekin eskarmentatu nahi gaituzte. Baina gu ez gara damutzen. Aspalditik ezagutzen ez dugu errepresioa, politika-arazoak pertsonalizatzen saiatu eta konpromiso handiena duten pertsonak bidetik kendu nahi dituzte".

AFKtik gaztigatu dutenez, "guztion artean nahi diegu aurre egin datozen erasoer. Horregatik,

erresistentzia-kutxak moduko tresnen garrantzia argi dugu. Elkar babestearren garrantzia". Gaineratu dutenez, "eraso honi" eta etorriko diren ekimenak "ekarriko dituzten kostuei aurre egiteko behar dugun baino diru gehiago lortuko dugu". Horretarako, hainbat ekimen martxan jarriko dituztela aurreratu dute. Baina, baita "faxismoaren egungo errealitateaz hausnartzeko, zer den, zer izan den ez ahazteko historia-memoria landuz..."

Faxismoaz

Plataformako kideen ustez, "guk ez dugu uste faxismoari gure plazak okupatzeko zilegitasunik aitortu behar zaionik, aldarrikatzen duten askatasun faltsu hori gure askatasuna ukatzera datorrelako". Horregatik, "uste dugu ezin dela faxismoa hazten utziko duen espaziorik hutsik



Ezkila-joleei babesa azaldu eta faxismoa salatu zuten larunbatean.

utzi behar. Izan fisikoa edo ideologikoa, frente guztietatik borrokatu behar zaio faxismoari". Ziurtatu zuten, "faxismoak gure kaleak okupatzen saiatzen den aldiro era batean edo bestean joko dugu ezkillkada".

Gaineratu zuten, azaroaren 4an "argi gelditu da asko garelako haiek inpunitate osoz nahi dutena egiten uzteko prest ez gaudenak". Horregatik, egun hartan "emandako erantzuna txalogarria iruditzen zaigu eta egindakoan berresten gara. Hori dela eta zoriandu nahi genituz-

ke mobilizazio antifaxista posible egin zuten altsasuar, euskal herritar eta atzeritik etorritako solidarioak".

Berretsi dute "faxismoa ez dela eta ezin dela izan langile klasearendako alternatiba bat" eta "faxismoa eta honen sortzailea den kapitalismoaren kontra antolatzerako eta borrokatzerako" deitu dute. Bestalde, elizak errepikan zerikusirik ez zuela esan eta apaizak esandakoak kritikatu zituzten. Baita alkateak plaza eta komunak uztea ere. **Osorik: www.guaixe.eus**

Senidetutako lau Uharte herriak lotzeko ibilbidea

Udalbiltzaren Hurbiltzen planak "herrien arteko senidetzeen bidez, mugen gainetik euskal herritarren arteko saretzea" bultzatu nahi du". Uharte Iruñea, Uharte Hiri, Uharte Garazi eta Uharte Arakil ibilbide baten bidez lotzeko antzinako erromatar bideak eta Donejakue bidea baliatu nahi dutela aurreratu zuten larunbatean.

Bi altsasuar Ahal Duguren primarioko zerrendan

Ahal Duguren Mikel Buil Parlamenturako zerrenda buruak primarioko zerrendan proposatu dituen artean Goazen Altsasuko bi zinegotziak daude: Virginia Alonso Aparicio eta Jose Luis Moran Fernandez. Builek egindako proposamena alderdian izena emandakoek bozkatuko dute azaroaren 20tik 25era. Beste hautagaiak ere badaude.

2018 Azarokotea

SAKANAN EROSI ETA URDAIAZPIKO BAT IRABAZI!

AZAROAREN 5ETIK 30ERA 25 URDAIAZPIKO JOKOAN

25 urdaiazpiko banatuko ditu Sakanako Dendari Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak azaroaren 5tik 30era elkartearen dendetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Erosketa egiterakoan txartel bat bete beharko da zozketan parte hartzeko. **Informazio guztia: www.sakanakogida.eus gunean**






ALTSASUN: Allianz Seguros; Asensio Moda; Boutique Ekin; Cafetería Akeita; Calzados Bengoetxea; Aldasoro Harategia; Sorkunde Harategia; Cocinas Santa Cruz; Cortinas Izara; Deportes Intxostia; Deportes Lezea; Electricidad Ramos; Electrodomésticos Ramos; Cristina Janari Denda; Gautxori Taberna; Gertu Sakana Sdad. Coop; Iker Kirolak; Joselen Moda; Joyería Norte; Koxka Taberna; Larka Emakumea / Gizona; Lasa Kirolak; Arkatz Liburudenda; Luresu; Mari Carmen; Marigorri; ML Moda Hombre; ML Moda Mujer; Muebles Santa Cruz; Óptica Sakana; Pinpilipauxa Moda Infantil; Sare Calzados; Tu tienda especial; Txartel; Txikitxo; Xagu informatica; Xume Taberna.

ETXARRIN: Argiro Optika; Barberia Iñaki Ileapaindegia; Comercial Etxarri Muebles Etxarri; Derry Taberna; Etxarri Hortz Klinika; Hostogorri Altzariak; Kaxeta Liburudenda; Kume; Lizardi; Leku-Ona Taberna; Sabando

LAKUNTZAN: Autoservicio Juncal; Isidoro Arregui Harategia; Tania Arraindegia.

OLAZTIN: Pako Harategia; Farmazia Olatz Etxagibel






Altsasuko institutuko ikasleak laborategian esperimientua egiten. LEIRE PALACIOS

Ikasleen artean zientziaren hazia ereiten

Zientziaren Asteak egitarauaren barruan Leire Palacios biologoa institutuan izan zen

ALTSASU

Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Asteak izaten dira azaroaren 3tik larunbatera arte. Eta horren barruan Egun batez ikerlari jardunaldia izan zen Altsasu institutuan pasa den asteazkenean. DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako ikasleek laborategi batean zer egiten den ezagutzeko aukera izan zuten Leire Palacios biologo altsasuarrarekin. Palacios gaur egun Zientzia Ikerketen Goi Kontseiluak eta Nafarroako Gobernuak sustatzen duten Agrobioteknologia Institutuan lan egiten du. Mikrobiologian espezializatuta dago. Ikerlariak azaldu zigunez, “gazteak zientzialarien harrobia dira eta, modu errazean, laborategi batean zer egiten dugun azaldu nien”.

Batxilergoko ikasleei ikerlari altsasuarrak azaldu zien ikas-

ketak bukatu zituenetik zein ibilbide egin zuen haien aurrera iristeko. Biologiako ikasketak egin eta bekarekin 2012 eta 2015 artean atzerrian izan zen. Nafarroako Gobernuak eskatuta ikerlari gisa ikastetxeetara bere esperientzia kontatzera joan zen 2012an eta 2013an. 2016tik zientzia astean parte hartu du urtero. Hitzaldiaren ondoren, bigarren orduan laborategian sartu ziren. DBH 4ko ikasleak, berriz, “zer ikasiko duten erabakitzeko garaian ez daude. Haiei laborategian zer egiten den azaldu eta gero laborategira joan ginen”. Palaciosek Iruñetik prestatuta ekarritakoekin esperimientua egin zuten guztiek eta egun batez zientzialari bilakatu ziren. “Ikasle eta irakasleekin oso gustura” egon zela esan digu ikerlariak, pozik zegoen “zientzia gizarteratzen” bere aletxoak jarzteagatik.

Sakanako hezkuntza esperientziak partekatzen

Nafarroako Eskola Kontseiluak XXII. Jardunaldietan Sakana Lanbide Heziketa institutuak ikasketa zerbitzu programa eta Sagrado Corazon ikastetxeak Josefina Arregi klinikara egindako bisitak azalduz parte hartu zuten

SAKANA

Euren esperientzien berri lehenik Tuteran eman zuten, lastailaren 23an eta 24an eta, bigarrenik, Iruñean azaroaren 7an eta 8an. Institutuaren izenean Genaro Paniaguak, Berta de Pablok eta Jon Koldo Goikoetxeak azaldu zuten zer den ikasketa zerbitzu kooperazio programa. Institutuko ikasleak Sakanako ikastetxeekin eta Josefina Arregi klinikarekin harremanetan jartzen dira eta haiek konponbidea eman diezaioketen beharrik baduten galdetzen diete. Beharren premia jasota, ahalmenen arabera (ikastetxeak pagatu behar ditu materialak), ikasleek proiektu horiek gauzatzeko dituzte.

Sagrado Corazon ikastetxetik, berriz, Maria Evangelina Uriz eta Susana Igoa joan ziren, Jose Joaquin Roldan Josefina Arregi klinikako mediku psikiatra eta AFAN elkarteko lehendakari Aurora Lozano lagunduta. Klinikak du proiektu bat zeinaren bidez ikasle txikiak Alzheimerra edo bestelako demenziak dituzten pertsonei bisitan joaten diren. Klinikak Sagrado Corazon ikastetxeari proposatu zion gauza bera DBHko ikasleekin egitea. Klinikako psikiatrak eta terapeutak zientzia edukia ida-

M^a Evangelina Uriz eta Susana Igoa Tuteran azalpenak ematen. HEZKUNTZA KONTSEILUA

tzi zuten eta ikastetxeari teknologia berrien klasean hari heltzea proposatu zioten. Joan den urtean iraileko azterketak garagarriera aurreratzean, ikasturtea despeditzeko gelditzen ziren egunetan hura probatzen hasi ziren ikasle nerabeak. Aurreikusitako materialen erdia eginga dute dagoeneko. Logotipoa sortu dute. Gainera, ikastetxean Alzheimerra beste eduki batzuk emateko marko gisa erabiltzen da.

Nafarroako Hezkuntza Kontseiluak antolatutako jardunaldiak hezkuntza komunitatetik

eta komunitatera hausnarketak eramatea dute helburu. Horretarako, edizio bakoitzean honakoak ezagutarazi nahi izaten dituzte: praktiken aldaketa eta hausnarketaren harremana lantzea, Nafarroako hezkuntza sisteman esperientzia esanguratsuak partekatzea, ikerketa-taldearen arteko ezagutzak modu iraunkorrean komunikatzeko bideak diseinatzea eta esperientzien ikusgarritasuna gizartera zabaltzea. Jardunaldietan aurkeztutako zortzi proiektuetatik bi Sakanakoak izan ziren.

Ikasleak Urbanan barnako ginkanan parte hartu dute

Lanbide Heziketako Mendi eta Eskaladako zikloko ikasleek antolatu zuen Altsasu eta Olaztiko ikasleendako

ALTSASU / OLATZAGUTIA

Montes Solidariosko kideek oinez ibili ezin duen ikasle batendako aulki berezi bat ekarri zuten ikasle horrek ere gainerrako guztiekin batera ginkanan eta aurrez prestatutako ibilaldian

parte har zezan. LHko ikasleek antolatutako jarduerak hainbat helburu zituen: inklusioa, ikasketak esanguratsuak egitea, komunitateari laguntza eskainiz ikastea, inguruaren ezagutza, kirola... Parte-hartzaileek ekin-

tzaren antolaketa txalotu dute, eguraldiak lagun, goiz ederra pasatzeko aukera izan zutelako. Gainera, normalean mendira eurekin batera joaterik ez duen gelakideak parte hartzeko aukera izatea “oso ongi” baloratu zuten. Bukatzeko, hamaiketako Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek antolatu eta bideratu zuten. Horrela, institutuko ikasleek ikasketa-zerbitzu egitasmoan parte hartu dute eta ikasi bitartean komunitateari zerbitzua eskaini diote.



Asteartean 60 bat pertsona inguru elkartu ziren Urbanan. OLAZTIKO ESKOLA



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



IZEN-EMATEA
www.euskaraldia.eus

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 16

ALTSASU Liburutegiak, aterpe naturalak. Zonaldeko sendabelarren tailerra, Laura Gurbindoren eskutik. 17:30ean, liburutegian.

IRURTZUN Antzerkia. 18:00etan, jubilatuen elkartean.

ALTSASU Gazte agenda. Serigrafia tailerra boltoetan: A25. 18:00etan, Intxostiapuntan.

OLAZTI Liburutegiak, aterpe naturalak. Ilustrazio tailerra Morkotsen eskutik. 18:00etan, liburutegian.

ZIORDIA Liburutegiak, aterpe naturalak. Ukendu tailerra Aintzane Ostolazarekin. 18:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.an.

ITURMENDI Eztanda irratien 19. urteurrena. AHTari buruzko hitzaldia. 19:00etan, gaztetxean.

IRURTZUN Mariano Izeta VIII. Bertso sariketaren kanporaketa. 20:00etan, Pikuxar elkartean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Bohemian Rhapsody filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gozamenez. Zentzumen gaua: *Alicata, la gramola del amor* antzerki eta musika ikuskizuna. 22:30ean, Haritza tabernan.

LARUNBATA 17

ITURMENDI Sakanako Gazte Asanbladen arteko jardunaldiak. Hitzaldia: *Zer da langile klaseko kide izatea.* 11:00etan, gaztetxean.

BAKAIKU Bazkidearen eguna. 12:00etatik aurrera, Bakarreoetxea elkartean.

DORRAO Gozamenez. Zine Forum: *Pride* filmaren emanaldia. Ondoren, solasaldia Diana

Arbonies Porresekin eta otamena. 18:00etatik 20:00etara, Auzo Sozialean.

ALTSASU Gazte agenda. Xakeatzen. 18:00etan, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA Tarima beltza antzerki konpainiaren *Madres y pasotas* antzezlana. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Manez eta Kobreak taldearen kontzertua. Sakanako BerriaLagunak taldeak antolatuta. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ITURMENDI Eztanda irratien 19. urteurrena. Papawonda eta Brigada improductiva taldeen kontzertua. 00:00etan, gaztetxean.

IGANDEA 18

ALTSASU Ibilbidea zehazteke. Barranka Txirindulari Taldeko mendi atalekoak ibiltzera aterako dira. 07:30ean, taldearen egoitzatik.

IRURTZUN Familiarteko zinema euskaraz.

17:00etan, kultur etxean.

LAKUNTZA Ikusi makusi ikuskizuna. 17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Sinergia 3.0 ikuskizuna. 17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda. Proiektzioa: Azaroak 25. 18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Bohemian Rhapsody. 19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 19

OLAZTI Liburutegiak, aterpe naturalak. Olaztiko pagoak haurrendako tailerra. Beltx. 17:00etan, liburutegian.

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 19:00ean, udaletxearen parean.

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

OSTIRALA 16

UHARTE ARAKIL Pintxo potea, izen ematea eta txapa banaketa. 19:00etatik aurrera, udaletxe aurrean.

OLAZTI Ahobizi eta belarriprest txapen jasotze eguna. 19:00etatik 20:30era, kultur etxean.

ALTSASU Euskaraldiaren azalpen saioa. 19:00etatik 20:00etara, Gure Etxea eraikinean.

URDIAN Zalantzak argitzeko, izena emateko eta txapak banatzeko informazio mahaia. 19:30ean, udaletxe ondoan.

IGANDEA 18

IRURTZUN Ongi etorri, Euskaraldia! 12:30 Herrian zehar kalejira, Irurtzango musika taldeek alaituta.

13:00 Txapak banatzea

13:30 Ahobizi eta belarripresten argazkia. Ondoren, gazta eta ardoa.

LAKUNTZA Txapa banaketa. 12:30etik 14:00era, plazan.

ALTSASU Ongi etorri Euskaraldira: txapen banaketa, talde argazkia eta auzatea. 13:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ZORION AGURRAK



Ricardo
Zorionak zure urtebetze egunean!!



Artzai Karasatorre Sureda
Zorionak Artzai!! 11 urte, 11 amets! Ongi pasa zure urtebetetzean. Maite zaitugu! *Etxekoak*



Garazi
Zorionak Garazi zure sei urteengatik! Asko maite zaitugu! Zure familian partez



Iradi Lanz
Zorionak Iradi Altsasuko aitona-amona eta izebaren partez!! Ondo pasa!!



Magali
Hatz guztiekien... ZORIONAK
Egun ona pasa potxola



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen ibitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU · Tel./Fax: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ASTEARTEA 20

IRURTZUN *Liburutegiak, aterpe naturalak.* Hegazti fauna haurrendako tailerra. Beltx. 17:00etan, *liburutegian.*

ALTSASU *Liburutegiak, aterpe naturalak.* Juan Goñiren *Los bosques que llevo dentro* liburuaren aurkezpena. 19:00etan, *liburutegian.*

ASTEAZKENA 21

ARBIZU Udazkeneko km-0 sukaldaritza tailerrak. Euskal txerri haragiarekin tupper menua. Ismael Alegria eta Ana Carmen Harte. Izena emateko: 672688591. 19:00etan, *Argi-Bidean elkartean.*

ALTSASU Txantxari ludotekaren urteurrena. Jolasaren onurak pertsonaren garapenean inguruko hitzaldia. Izena ematea: ludotekan. 19:00etan, *ludotekan.*

ARBIZU *Liburutegiak, aterpe naturalak.* Naturari buruzko dokumentala. 20:00etan, *liburutegian.*

OSTEGUNA 22

ZIORDIA *Liburutegiak, aterpe naturalak.* Okilak haurrendako tailerra Beltxen eskutik. 18:00etan, *liburutegian.*

ALTSASU Txantxari ludotekaren urteurrena. Magia ikuskizuna. 18:30ean, *ludotekan.*

IRURTZUN *El corralito foral* liburuaren aurkezpena. Hizlaria: Ivan Gimenez. 19:00etan, *liburutegian.*

ETXARRI ARANATZ *Liburutegiak, aterpe naturalak.* Haurrendako birziklatze tailerra. 19:00etan, *liburutegian.*

ALTSASU *Sociedad literaria y el paste de piel de patata* filmaren emanaldia.

19:30ean, *lortia kultur gunean.*

OLAZTI Everest. *Por que esta ahí lon Berasategirekin* solasaldia. 20:00etan, *liburutegian.*



OLAZTI *Liburutegiak, aterpe naturalak.* Zenbait artisten *Urbasari buruzko* pintura erakusketa. Azaroaren 30era arte. *Astelehenetik ostiralera 16:30etik 20:30era, liburutegian.*



ALTSASU Juanjo Lopez Azurmendi argazkilariaren eta bidaiariaren 'Bidaian' argazki erakusketa. Azaroaren 25era arte. *Astelehenetik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.*



ALTSASU Altsasuko ferietako argazki rallyaren lanen erakusketa. Altsasuko Mendigoizaleak antolatuta. Azaroaren 25era arte. *Gure Etxean.*

HERIOTZAK

- **Eusebia Azpiroz Elo**, azaroaren 10ean Uharte Arakilen
- **Maria Diez de Ulzurrun Beloqui**, azaroaren 13an Hiriberri Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

Utzubar ind. (Etxarri A.)
500m2ko
nabea salgai,
639 334 688

IKASTAROKAK

MUSIKA

Instrumentu bat jotzen ikasi nahi duzu? Egin proba baxuarekin! Ez da beharrezkoa musika ikasketak izatea, gogoia bakarrik. Adin guztiendako. Luisillo 617 723 297

IBILGAILUA

SALGAI

Seat Ibiza Sport Rider autoa salgai. Beltza, 100 cv, 2007koa. Egoera onean. Kontzesionarioan egindako errebisioak ziurtagiriek. 152000Km 4500 euro. Interesatuak deitu 690 115 640 tñora

LEHIAKETAK

GAZTEWOOD. Altsasuko gaztebearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111,

31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 100 2173 87 0200346965

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

ERLOJUA ALTSASUN. Esferaren atzeko aldean MR hizkiak eta 22-6-53 eta 22-6-78 datak ditu idatziak. Longines markakoa. Galdutuenak Guaixe astejarira hots egin dezala, 948 564 275

Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.eus

ESKELA



Juantxo Uribe-Etxeberria Flores

Eman zaidazu bihotza eta Ken berriz nahigabeak Esan noiz garen izanen Gure etorkizunen jabeak

Flores Arregui familia

Iruñea - Lakuntza 2018ko azaroaren 16a

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

tanatorioak
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🖱 www.tanatoriosirache.es

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN, ETXARRI ARANATZEN

10:00 Urdiaín - Tipi Tapa

11:15 Etxarri Aranatz 1 - Lagun Artea 07

12:30 Etxarri Aranatz A - Lagun Artea 08

Sakanako Futbol Topaketak:

Kimuen 3. jardunaldia

Sakanako Futbol Topaketak Mank-ek antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbidetu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Igandean kimuen mailako 3. jardunaldia jokatu da Etxarri Aranatz.

ELOMENDI TXAPELKETA

6. JARDUNALDIKO EMAITZA

Zaldua - Ardoi

3-3

SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1	Zaldua	13
2	Bidezarra	12

PARTIDUA

LARUNBATEAN

Zehaztu gabe Basati - Zaldua (Ukarren)

Zalduak lider jarraitzen du

Elomendiko Futbol Txapelketan 6. jardunaldia jokatu zen asteburuan. Etxarrengo Zalduak Zizurko Ardoi izan zuen aurkari etxean, eta partida oso mugituan, hiruna berdindu zuten bi taldeek. Larunbatean azkenurrekoa den Basati izango du aurkari Ukarren.

TXIRRINDULARITZA

Euskadi-Murias Irurtzunen

Euskadi-Murias txirrindularitza talde profesional kontinentalak Irurtzunen jarri du hitzordua asteburu honetan.

Gaurtik, ostiraletik, igandera bitartean Irurtzunen kontzentratuko dira taldeko txirrindulariak, mekanikariak, zuzendariak eta staffeko kide guztiak, 2019ko denboraldia prestatzeko. Hitzaldiak eta bilerak izango dituzte, maillotak eta materiala prestatzeko neurriak hartuko dizkiete txirrindulariei, eta horretaz gain, txirrindulariek eta teknikariek mendira irteera egingo dute. Talde horretako kidea da Patxi Mundiñano etxarriarra, mekanikaria eta zuzendari laguntzailea, hain zuzen.

Beraza, Espainiako txapeldunordea

MOTOZIKLISMOA / ENDURO Junior Open mailako Espainiako Enduro Txapelketako txapeldunordea da Irañetako Marcos Beraza moto gidaria. Nahiz eta azkenaldian entrenatzeko beta nahikorik ez izan, denboraldiari ongi eutsi dio

Urriaren bukaeran Espainiako Enduro Txapelketako azken jardunaldia jokatu zen Cuencan. Bertan aritu zen Irañetako Marcos Beraza pilotua, Espainiako Txapelketako aurreko lasterketetan bezala. Berazak azaldu zuenez, Espainiako Txapelketako Junior Open mailako bigarren postua ziurtatzeko egin zuen lana, erritmoa gutxika hartuz. Helburua gauzatu zuen, irintarrak postua mantendu baitzuen eta Espainiako Txapelketako Junior Open mailako txapeldunordea baitugu.

Entrenatzeko nahikoa astirik ez Irintarrak ezin izan du behar bezala prestatu "Denboraldian goitik behera egin dut. Indartsu hasi nintzen entrenatzen eta emaitza oso onak lortu nituen, baina lana egiten hastearrekin batera ezin izan nuen horrenbeste entrena eta hori, azken bi lasterketetan, nabaritu egin da, baina lehenetsunak lehen-



Marcos Beraza, Cuencako enduro proban BERAZA

tasunak dira. Dena den, eginda-koarekin kontentua nago eta nire ondoan zaudetenei eta horrenbeste laguntzen eta jarraitzen nauzuen guztioi eskerririk beronek eman nahi dizkizuet" gaineratu du, sare sozialetan.

Enduroa

Modu laburrean esateko, enduroa motokrossaren eta trialaren arteko nahasketa da: motokrossaren abiadura eta trialaren teknika nahasten ditu. Aldi berean, erresistentzia proba da.

Osasuna Magnaren garaipen garrantzitsua Zaragozan

ARETO FUTBOLA Lehen mailako 9. postura igo dira berdeak eta gaur Valdepeñas izango dute aurkari

Osasuna Magna Xotak denboraldiko etxetik kanpoko lehen garaipena lortu zuen Zaragozan. Erritmo biziko partidari, 0 eta 2 irabazi zuten berdeek Saldisek eta Usinek sartutako golei esker. "Hiru puntuak lortu ditugu, emaitza justua, baina izugarri sufritu dugu" onartu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

Barcelona Lassa da liderra (23 puntu) eta Osasuna Magna 9. postura igo da (12 puntu). Gaur, ostiraletan, 20:30ean, Valdepeñas hartuko dute berdeek Anaitasun. Partida solidarioa da;

txarteldegian jasotako guztia Lacturale esnea eroatera bideratuko da, Nafarroako Elikagai Bilketa Erraldoira eramateko.

Urrezko domina Esevenriri

Nafarroako Gobernuak azaroaren 30ean banatuko ditu Kirol Merituari Urrezko eta Zilarrezko Dominak. Urrezko dominetako bat Javi Esevenriri jasoko du "23 urtez areto futboletan jokatzeari, horietatik 20 goimailako kategorian, betiere Irurtzungo Xota kirol-taldearekin". Zorionak jokalariei.

SASKIBALOIA CBASK Altsasu taldearen porrota Iruñean

Aurreko urtean mailaz igo eta gero, aurten kategoria estreintatu eta dagoeneko Autonomien Artek 2. Mailako Ligako sei jardunaldi jokatu ditu CBASK-ek. Azken larunbatean izan zen, Iruñeko Larrabide kaleko San Ignacio kiroldegian, San Ignacio taldearen kontra jokatutakoa. Partida estuan, azkenean Iruñekoek irabazi zieten altsasuarrei, 69 eta 55. Lider berria du Autonomia Artek 2. mailak, Domiberia taldea (11 puntu). CBASK taldeak postu bat egin du behera eta 11 taldetatik bosgarrena da (8 puntu). Asteburu honetan atseden jardunaldia du Altsasuko Saskibaloitza Taldeak.

FUTBOL PREFERENTEA

9. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri - Mutilbera

1-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Lagunak Barañain	17
10	Etxarri Aranatz	12

PARTIDUA

IGANDEAN

15:45 Etxarri - Aibares (San Donaton)

Etxarri ezinean liderraren kontra

Barañainen jokaturako partida mugitua izan zen, arbitroak makina bat txartel atera baitzituen. Lagunak taldea nagusitu zitzaion Etxarri. Liderrak gol aukera ugari izan zituen, gauzatu zituenak. 5 eta 0 galduta itzuli ziren etxarriarrak

FUTBOL ERREGIONALA

10. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Aurrera - Lagun Artea

1-2

Berriozar - Altsasu

1-0

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Lagunak B Barañain	24
2	Lagun Artea	23
4	Altsasu	17

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

15:30 Altsasu - Beti Kozkor (Dantzalekun)

IGANDEAN

15:45 Lagun Artea - Berriozar (Lakuntzan)

Lagunek irabazi eta Altsasuk galdu

Berastegik Lagun Artea aurreratu zuen berehala. Ongi defendatu zuten txuriek, Burillok bigarrena sartu zuen eta nahiz eta Aurrera gerturatu, 3 puntuak Lakuntzara etorri ziren. Berriozarren etxeko taldea aurreratu zen, eta nahiz eta altsasuarrek berdintzen saiatu, ezinezkoa izan zen.

EMAKUM. ERREGIONALA

10. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Muller

0-3

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna	30
11	Altsasu	10

PARTIDUAK

IGANDEAN

12:00 Lagunak - Altsasu (Barañainen)

Altsasuarrek hirugarrenen kontra

Altsasuko neskek ezin izan zuten Mullierren kontra garaipena ospatu eta 3 puntu garrantzitsu galdu zituzten. Igandean sailkapenean hirugarrena den Lagunak taldearen kontra ariko dira Barañainen, beste partida konplikatua bat.

PILOTA Nafarroako Gazteen Lau t'erdiko final laurdenak jokoan

Guillermo Mazo Memorialeko edo Gazteen Nafarroako Lau t'erdiko Txapelketako final zortzirenak jokatu ziren aste honetan, Etxarrengo pilotalekuan eta Lekunberriko frontoian. Sakandarrei dagokienez Larraun klubeko Galartzak 18 eta 5 irabazi zion Irurtzun klubeko I. Arañari eta, Irurtzungo Lima txapelketatik kanpo geratu zen baita ere, Txarutako Ballarenaren kontra 9 eta 18 galdu eta gero. Aldiz, Ganboak (Oberena) aurrera egin zuen.

Asteazkenean, azaroaren 21ean, Nafarroako Gazteen Lau t'erdiko txapelketako final laurdenak jokatuko dira Lekunberri. Ordezkarri bakarra dugu, Oberena klubeko Ganboa. Txarutako Ariztegi izanen du aurkari, eta ea txapelketan aurrera egiten duen. Beste final laurdenetan Agirrek (Erreka) Oskoz (Oberena) izango du arerio, Ballarenak (Txaruta) Apezetxea (Umoro Ona) eta de la Fuentek (Ultzama) Galartza (Larraun).

Maiza eta Bergara, Nafarroako txapeldunak

TRIATLOIA / DUATLOIA Nafarroako Triatloi Galan Nafarroako Duatloi Txapelketako beterranoen 2. mailako txapeldunaren saria jaso zuen Juan Luis Maizak eta beterranoen 3. mailako txapeldunaren saria Peio Bergarak

Larunbatean Nafarroako 2018ko Triatloi Gala hartu zuen Lizarrako Los Llanos kultur guneak, Nafarroako Triatloi Federazioak antolatutakoa. Bertan, 2018ko Nafarroako Triatloi, Duatloi eta Akuatloiko Txapelketetako sariak banatu ziren, besteak beste, eta esan beharra dago horietako bi sari Sakanara iritsi zirela.

Maiza eta Bergara gorenean Nafarroako Duatloi Txapelketako beterranoen 2. mailako txapeldunaren saria Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maizak jaso zuen; horrela, podiumaren gorenera igo zen etxarriarra. Baina ez zen bakarria izan, be-



Maiza eta Bergara, podiumean. SAKANA T.T.

teranoen 3. mailako txapeldunaren saria bere taldekide Peio Bergara altsasuarrendako izan baitzen. Hortaz, puntako beterranoak ditugu Sakana Triatloi Taldean, Nafarroako duatloi txapeldunak, hain zuzen.

Sakana Triatloi Taldea, 2019a prestatzen

Sakana Triatloi Taldetik adierazi digutenez, igandean, 19:00etan, Sakana Triatloi Taldeko kideak Altsasuko Beti Iaten elkartearen bilduko dira, 2019ko denboraldia prestatzen hasteko. Taldeko kideei edo triatloian eta duatloian interesa dutenentzako deialdia da.



Atletak Dantzalekun.

ATLETISMOA NKJ-en Udazken-Neguko Pistako 1. jardunaldia

Altsasuko Dantzalekuko pistek Nafar Kirol Jolasen (NKJ) Udazken-Neguko Atletismo Pistako 14 urtez azpikoen lehen jardunaldia hartuko dute bihar, larunbatean, goizeko 10:30ean, Nafarroako Atletismo Federazioak antolatuta. Tartean, 14 urtez azpiko luzera-jauzia, 500 m, 150 m, 3.000 m distantziako lasterketak eta erreleboak jokatuko dira.



RUEDA DE ASIA

AZAROAK 19 IREKIERA

 Apainketa	 Sukaldea	 Festarako produktoak	 Jostailuak
 Arropa	 Papertegia	 Etxeko ehungintza	 Burdindegia

Altsasun Iruñeako etorbidea 11 A

Gabonetako ordutegia:
Asteleheneetik larunbatara 9:30etatik 21:30etara Igandean 10:00etatik 20:30etara

Lehenengo astean
 %10
 -eko deskontua



Emakumeek pilotan trebatzeko aukera badute Sakanan.

Neska, pilotari izan nahi duzu? Etorri Altsasuko eskolara!

PILOTA Emakumeendako Pilota Eskola dago martxan Altsasun, haur eta gazteendako. Izena ematea, zabalik

Geroz eta emakume pilotari gehiago dago eta Sakanan ere zaletasuna duten neska eta gazteei pilotan trebatzeko aukera eskaini nahi zaie. Horrela, Altsasuko Udalak eta Nafarroako Pilota Federazioak antolatuta, martxan da emakumeendako pilota eskola. Eskola antolatze-ko orduan, Sakanako Mankomunitatearen eta Nafarroako Gobernuaren laguntza izan dute antolatzaileek.

Bi maila: haurrak eta gazteak
Urrian zabaldu zituen atearik emakumeendako pilota eskolak

PILOTA Adur Lasa pilotari etxarriarrari ebakuntza egin diote

Adur Lasa pilotari etxarriarra kirofanotik pasatu behar izan da, partida bat jokatzen ari zela lesionatu eta izandako haustura bat konpontzeko.

Igandean lesionatu zen Lasa IV.a, Tolosako Beotibarreko jaialdia isten zuen partida jokatzen ari zela. Adur Lasa Mendizabal III.aren batera ari zen lehian, Agirreren eta Etchegoinen kontra. Lasa eta Mendizabal 3 eta 14 galtzen ari ziren etxarriarrak lesioa izan zuenean. Zehazki, Akilesen tendoiko haustura konpontzeko ebakuntza egin zioten Lasa IV.ari, eta Aspe enpresatik aurreikusten dute gutxienez bost hilabete egongo dela bajaran.

baina oraindik izena eman daiteke. Informaziorako edo izena emateko, haurrek (2005-2009 bitartean jaiotakoak) Altsasuko Kirol Zerbitzura jo behar dute (948 468 343) eta gazteak (2004an jaiotakoak edo helduagoak), Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzura (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus).

Lander Goñi da emakumeendako pilota eskolako monitorea. Asteartetan (17:00-18:00) eta ostiraletan (18:00-19:00) haurrekin lan egiten du eta ostiraletan (19:00-20:00) gazteekin, Altsasuko Burunda pilotalekuan.

PILOTA Azpiroz eta Ganboa txapelkunak Gartzaronen

Larunbatean 34. Gartzarongo Binakako Txapelketako finalak jokatu ziren Basaburuan, pilotalekuan sekulako giroa zela; jokoan zeuden finaletatik bi txapel etorri ziren Sakanara.

Batetik, kadeteetan, Irurtzun klubeko Azpirozek eta Buruzgain klubeko De la Fuentek kadeteen mailako txapela jantzi zuten, Errioxako Pesori eta Tolosako Suduperi 14 eta 18 irabazi eta gero, partida oso lehiatuan.

Beste txapel bat ere Sakanara etorri zen, jubilenen mailakoa hain zuzen ere, Oberena klubeko Oskozek eta Ganboak 22 eta 21 irabazi baitzieten Amezketa-ko Zabalarari eta Olanori, final oso estuan.



Bat lortuta...

Bakaikoak Promesen txapela ekarri du

PILOTA Promesen Lau t'erdiko finalean 16 eta 22 irabazi zion Joanes Bakaikoak Jon Ander Peñari. Hurrengo urtean Lehen Mailako Buruz Burukoan eta Lau t'erdian aritzeko txartela lortu du etxarriarrak, urte borobilean

Joanes Bakaikoak urte zoragarriari ginda jarri zion larunbatean Labriten. Maiatzean Promesen mailako Buruz Burukoa irabazi ondoren, larunbatean Promesen Lau t'erdia irabazi zuen Asegarceko aurrelari etxarriarrak, Peña II.aren kontra jokatutako finalean. Final estuan, 16 eta 22 irabazi zuen etxarriarrak, promesen kaiolako txapela jantzi zuen eta hurrengo urtean, 2019an, lehen mailako Buruz Buruko eta Lau t'erdiko txapelketetan aritzeko txartela lortu zuen. Elitera hurbiltzeko pausu erraldoia eman du, beraz, Etxarriko pilotariak.

Bakaikoak izan zuen kontrola, baina sufritu ere egin zuen

Iruñeko Bombonerak itxura oso polita zuen larunbatean, Promesen Lau t'erdiko finala hartzeko. Akaso Jon Ander Peñak zuen gihar eta potentzia gehiago, baina Joanes Bakaikoak izan zuen, uneoro, partidaren kontrola. Etxarriarrak ez zuen partidatik deskonektatu, Peñari tarteka gertatu zitzaion bezala. Horrela, partida eraginkorra egiten saiatu zen etxarriarra, pilota ezker paretara hurbilduz eta presioa nabaritu zuenean, pilotari altuera ematen. Hasieran, sakea alde zuela 2 eta 10 aurretatu zen Bakaikoa. Jon Ander Peñak ez zuen bere tokia aurkitu eta tantoak akats nabarmenekin tartekatu zituen. Horrela markagailuan 5 eta 14 joan zen Bakaikoa. Partidaren erdialdera, bolada on bat izan zuen gipuzkoarrak eta 14 eta 16 hurbildu zen markagailuan, baina, etxarriarrak ez zuen kontzentrazioa galdu eta, azkenean, Peñaren akatsak eta Bakaikoaren tantoak tarteko, 16 eta 22 irabazi zuen etxarriarrak.

Banakako bi txapelak, bereak
Bukaeran oso zoriontsu zegoen Bakaikoa. "Urte borobila izan



Joanes Bakaikoa Promesen Lau t'erdiko txapelarekin eta trofeoarekin. ASEGARCE

da hau; Buruz Burukoaren ondoren Lau t'erdikoak borobiltzen duena" azaldu zuen. Onartu zuen finalean une larriak pasa zituela. "Finalak ezberdinak dira, tentsio handia egoten da, baina oso zentratuta hasi dut

"OPARIA EGIN NION PEÑARI, BAINA ESTUTASUNETIK ATERA ETA FINALA IRABAZTEA LORTU NUEN"

partida. Partida erdian beherkadaren bat izatea normala da, eta izan dut, sakearekin opari handia egin baitiot Peñari; abantaila polita nuen eta egin diodan opari horri buelta asko eman dizkiot, baina zentratuta jarraitu dut eta estutasun horretatik ateratzea eta irabaztea lortu dut" aipatu zuen etxarriarrak.

Lau t'erdiko promesen mailako txapela ekarri du Bakaikoak Sakanara. Ederki ospatu zuen larunbatean. Ea etzi Ezkurdiak lehen mailakoa ekartzen duen.



Joseba Ezkurdiarekin aurreko ostiralean egon ginen, Arbizuko Aldabide elkartearen. 16 komunikabide ingururekin bildu zen.

"Txapela Nafarroan jokatzera handia da"

PILOTA Igandea, azaroak 18. Nafarroa Arena. Lau t'erdiko final handia dute jokoan Joseba Ezkurdiak eta Jokin Altunak. Bakaikoaren txapelarekin batera Arbizukoaren dobletearen zain, irabazi edo galdu festa polita prestatzen ari dira Arbizun

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Finalerdiak baino lehen esan zenuen oso handia litzatekeela Lau t'erdiko finalera sailkatzea. Hortaz, orain erraldoia litzateke finala irabaztea? Bai, latza! Zaila izango da, baina lasai eta ongi nago, eta ikusten dut nik nirea egiten badut irabazteko aukerak baditudala. **Finalerdia irabazi zenuenean esan zenuen pozik zeundela partida kontrolatu zenuelako. Orain arte ez al zenuen sentsazio hori?**

Urrutikoetxea markagailuan hurbiltzen hasi zitzaizkidan, lasaitasuna izan nuen, nire burua oso ongi kontrolatu nuen eta horrek sekulako konfiantza eman zidan; gustura sentitu nintzen momentu horretan. Ea hemendik aurrera horrela jarraitzen dugun.

Konfiantza hori lortzeko lanketa bereziren bat egin duzu? Coach baten beharra izan duzu?

Pilotan momentu oso onak izan ditut eta baita oso txarrak, bai-

na horietatik ere ikasi egin dut eta aurrera egin dut. Sarritan ikusten nuen nik gogor entrenatzen nuela, baina kantxara ateratzerakoan ez nuela ongi egiten; ez nuen ikusten nire burua entrenamenduetan bezala. Horrela, aurreko urtean coach batekin lanean hasi nintzen, hitz egiten, eta oso ongi etorri zait: konfiantza askoz gehiago-ekin sentitzen naiz. Balio duela. Maila honetan detaileak oso garrantzitsuak dira, burua entrenatzea, fisikoa eta frontoia entrenatzea bezain inportantea da edo gehiago.

Eta gorputzak eta eskuak laguntzen badizute...

"BURUA ENTRENATZEA FISIKOA ETA FRONTOIA ENTRENATZEA BEZAIN GARRANTZITSUA DA, EDO GEHIAGO"

Bai, suertea daukat, eskuak oso ongi erantzun didate. Fisikoki beti izaten da molestiaren bat, baina ezer seriorik ez eta alde horretatik oso pozik nago lesioek asko errespetatzen naudelako. **Aurten botilerorik gabe jokatuko duzue finala, biak, Altuna eta zu, enpresa berdinekoak zaretelako. Botilerorik gabeko lehen finala izango da...**

Bai, dena izanen da berria: frontoi berria, toki berria eta botilerorik gabe. Txapelketan gehienetan Asegarcekoekin jokatzea tokatu zait eta botilerorik izan ditut, Altunaren kontra izan ezik. Baina ez diot bueltarik ematen. Azkenean finalera ongi iristea nahi dut, nire eskutan dagoena ongi egin eta listo. Kontrolatu ezin ditudan gauzei ezin diet bueltarik eman. Dena den, nik beti esan dut erasoago nagoela aulkian Juanen edo nire anaiaren laguntza izanda.

Katedraren sektore gehienarendako faboritoa zu zara.

Ni ez naiz faborito ikusten. Badakit partida oso zaila dudala aurretik: azkenean Altuna da azken hiru urtetan finala jokatzen duena, Buruz Buruko egungo txapelduna, eta kristoren meritoa dauka Jokinek. Arerio zaila da, deserosoa. Inprobisatu egiten du. Zu tanto bat dominatzen ari zara, baina ez dakit nondik jorkaldi bat ateratzen du eta bera dominatzen pasatzen da. Partidak oso ongi irakurtzen ditu eta momentu bakoitzean badaki zer egin. 22 urterekin duen heldutasuna ikaragarria da. Baina ikusi dut gauzak ongi eginda posible diodala irabaztea, nik nire jokoa egiten badut berari ere mina egiten diodala eta hori aprobetxatu beharra daukat.

Zein izango da gakoa, zure ustetan?

Nik sakea aprobetxatu beharra daukat eta errestatzea tokatzen zaidanean, ahalik eta hobekien errestatu. Izan ere, errestoa oso inportantea da Jokin bezalako pilotariek, ez baduzu sakea ongi kentzen sake-erremate, ti-ta egiten dizu. Tantzot-tantzot borrokatu, burua garbi izan eta ahalik eta erritmo gehiena jartzen saiatuko naiz.

Nafarroa Arena zuk mustu zenuen, jokatzeke nolako da?

Frontoia bezala zaila da. Frontoi berriak onak izatea ez da ohikoa. Ezker pareta latza du, frontisetik salda, hori dena kontrolatu behar da eta entrenamenduetan landu: distantziak, ezaugarriak... Baina eraikin bezala, espektakularra da.

Niretzako finala hemen jokatzea handia da. Nafarroan aurreneko aldiz halako final handia jokatzeak ilusio berezia egiten dit eta txapela hori lortzeko aukera duen lehen nafarra izateak ilusio handia egiten dit. Oso polita litzateke txapela hemen jantzea. Jendea ere ilusionatuta dago; di-da saldu ziren finaleko sarrerak.

Binakako txapela Zabaletarekin lortu zenuen, baina txapela bat bakarka irabazteak beste balio bat du? Zure ibilbidea finkatzea litzateke?

"FINALAK EZ DIRA EGUNERO JOKATZEN ETA IRABAZI EDO GALDU, IGANDEAN OSPATUKO DUGU"

Igual alde batetik bai. Badakit txapelaren borrokan nagoela, hor ikusi dut nire burua, eta horrek motibatu eta konfiantza ematen dit. Baina urtea banakako txapel batekin bukatzea ikaragarria litzateke, urtea borrobila izateko. Binakako finalak ilusio berezia egin zidan, baina honetan ni bakarrik nago kantxan, nire buruarekin borrokan ni bakarrik, ez daukat lagunaren babes hori eta finalera iristea eta txapela lortzeko kapaza izatea gauza handia da; ea lortzen dugun.

Zenbat sarrera eman dizkizute?

Hasieran 264, gero eskatu nituen beste 10 gehiago, eta gero beste 12. Arreba eta bi lagun ari dira kudeatzen, erotuko nintzateke bestela. Badakit lagunak finaleko prestaketetan dabiltzala, eta eskertzeko hitzak besterik ez ditut. Ea dena ongi ateratzen den eta festa on bat egiten dugun.

Galdu edo irabazi, ospatuko duzue?

Bai. Finalak ez dira egunero jokatzen. Zazpi urte pasa behar izan dira 2018an final bat aurreneko jokatzeke; hortaz, galdua ere ospatuko dugu. Irabazita beste grazia bat izango du, du-darik gabe, baina ospatzeko eguna izango da. Arbizuko frontoian afalduko dugu eta gero ikusiko dugu non luzatuko dugun parranda.

Eguna gerturatu ahala urduriago jarriko zara?

Urduritasun puntu bat izatea behar da, eta dudarik gabe, urduriago jarriko naiz. Egunez kontrolatzen duzu, baina gero igual lotara joatean buruari bueltak ematen hasten zara.

Bezperan zer egingo duzu?

Ahalik eta lasaienen egon. Etxean lasai, edo paseo bat egin, edo zinera... deskonektatzen saiatuko naiz.

Bakaikoak promesen Lau t'erdikoak ekarri du. Zuk lehen mailakoa ekartzera handia litzateke Sakanan. Dobletea...

Bai, dobletea lortzea oso polita izanen litzateke. Joanes pilotari fina da, asko jokatzen duena, eta hurrengo urtean Buruz Burukoan eta Lau t'erdian arerio izango duguna. Eta ongi etorria. **Munduko zorterik onena opa dizugu, Joseba!**

Eskerrik asko!

Jarraitu zuzenean finala Guaixeren bitartez



Joxemari Mercero, 2017ko Behobia-Donostian hartutako irudian. UTZITAKOIA

"80 urterekin korrikan segitzea nahiko nuke"

ATLETISMOA 79 urterekin aurten bere 33. Behobia-Donostia egin du Unanuko korrikalari beteranoak. Emaztearen osasun arazoak tarteko, ezin izan zuen behar bezala entrenatu baina seme-alabek animatuta osatu zuen proba herrikoia

Eneida Carreño Mundiñano / Mainer Betelu Ganboa UNANU
33 urtez Behobia-Donostia korritzen. Erraz esaten da!

Bai... Tarteka egin ditut 33 edizio horiek, ez jarraian. Txoferra nintzen eta lan egiten nuen enpresak askotan igandetan ere lan egiten zuen. Sarritan esaten zidaten "gaur ezin zara Beho-

biara joan, lanera etorri behar duzu". Beraz, Behobia batzuk galdu ditut, baina beti lanarengatik. Aurten emaztea gaixotuta egon da, eta ez neukan Behobia korritzeko ideia, oso gutxi entrenatu nuelako. Baina semeak esan zidan "aita, ilobak zu ikustera etorri behar dira; denbora asko uzten dute bukatzeko, bi

ordu luze pasa, tarte horretan egingo duzu...". Eta azkenean animatu nintzen.

Noiz hasi zinen korrikan?

18 urterekin lehendabiziko karrera korritu nuen Iruñean, Salesianosen. Lakuntzako Ferminek eraman ninduen Iruñera. Pentsa, nik orduan ez nekien non zegoen Iruña ere. Lehenda-

biziko bost-sei karreretan Ferminek lagundu zidan. 23 urte arte korrikan ibili nintzen jarraian. Soldado nengoela ere, "Subcampeon de militares" atera nintzen. Baina soldadutik etorri eta txofer hasi nintzen. Letrak nik baino gehiago egiten zuen korrika, eta karrerak utzi egin behar izan nituen. Letrekin, orduan ez zegoen korrika egiterik (kar kar...). Gero 37 urterekin hasi nintzen berriro.

Trukoren bat duzu urte luze hauetan sasoioko egoteko eta, tartean, 33 Behobia egiteko?

Neretako hori ez da zaila; nire bizi guztian asko gustatu izan zait korrika egitea, eta osasunak lagundu egin dit. Ez dut inon minarik izan. Beti ongi ibili naiz osasunez, eta ez da lana ez dudalako egin; lan handiak eginak baigara. Bizia ere normala egin dut, lana egin eta jana pixkat begiratu, jan garbiak jan, fumatu ere ez eta alkohola probatu ere egin ez. Halako gauzak bakarrik.

Aurten entrenamendu gutxiarekin joan zinen Behobia-Donostiara. Zer moduz joan zen?

Atera eta Gaintxurizketa bidean nituen 3 lehengusu propio nire zain. Gelditu, bina musu eman nizekien, eta fotografia atera eta guzti egin nuen. Korrikan gora jarraitu, Gaintxurizketa iritsi eta konturatu nintzen bi hantetan kristoren mina nuela. Pentsatu nuen ez nintzela Donostiara iritsiko, baina iloba

txikiak Iruñetik aitona ikustera joanak zirela gogoratu nuen, buruari gogor egin eta pentsatu nuen, "ailegatu behar naiz ahal den bezala". Egia esan, nahiko sufritu nuen, bi hantak minberatu egin zitzaizkidan. Emaztea gaixo egon zenean 3 kilo galdu nituen eta medikuak esan zidan muskuloak galdu nituela eta horregatik igual hantek ematen zidatela min asko, hantetan indar nahikorik ez nuelako.

Burua ongi prestatuta eramatea inportantea da, ezta?

Hori da printzipalena, ongi prestatuta joatea. Ni beti oso ongi ibili naiz Behobian, aurten izan ezik. Baneukan motiboa, baina beste denetan oso ongi egin dut. Lehendabiziko Behobia 1:23:00 egin nuen, baina ondotik 1:18:00, 1:19:00, 1:20:00... pilo bat egin ditut. Aurten 2:18:41.

Egun emakume asko dabiltza korrikan, baina lehen ez, ezta?

Nire gazte denboran ez ziren emakumeak aritzen. 37 urterekin korrikara bueltatu nintzenez orduan batzuk hasiak ziren, baina 23 urtetaraino ezta bat bakarra ere. Emakumeak aritzea oso ongi dago: andreak oso sinpatikak dira, gizonak baino gehiago, eta beraiekin aritzea kategorია da.

Zein da zure hurrengo erronka?

Hurrengo urtean, 80 urterekin, korrikan ibiltzeko abilezia izaten jarraitu nahi dut. Ilusio hori dut. Behobian aritzea? Hori izango litzateke oso pozgarria.

72 sakandar Behobia-Donostian (20 km)

Behobia-Donostia herri lasterketaren 54. edizioa izan zen aurten jokaturakoa eta 30.775 parte-hartzaile zeuden aurretik izena emanda. Horietatik 24.914 korrikalarik lortu zuten helmugara heltzea, Donostian bildu ziren milaka ikusleen txaloen artean.

Irabazleak Jaume Leiva (1:00:22) eta Aroa Merino (1:09:44) izan ziren. Irristalarien artean Aitor Vacas (36:27) eta Idoia Martinez (40:24) gailendu ziren, gurpildun aukietan Jorge Madera (50:36) eta handbikean Ivan Manoel Montero (41:25) eta Pilar Montoya (1:18:10).

Proban izena eman zuten 1.662 nafarretatik 1.413 korrikalarik lortu zuten Behobia-Donostia lasterketa despeditzea.

Tartean 72 sakandar zeuden, aurreko urtean baino 4 gehiago. Helmugara 340. postuan sartu zen Mikel Satrustegi arruazuarra (1:16:15) eta helmugan 3.867.a izan zen Erkuden San Martin korrikalari etxarriarra (01:31:54) izan ziren sakandarren artean azkarrenak.

Gizonak

1. Jaume Leiva (Terrassa)	01:00:22
340. Mikel Satrustegi (Arruazu)	01:16:15
409. Joxeja Maiza (Etx)	01:17:17
653. Alatz Agirre (Arb)	01:19:26
828. Ivan Sobredo (Alts)	01:20:44
830. Jorge Azanza (Zior)	01:20:45
831. Aritz Munarriz (Etx)	01:20:45
905. Egoitz Carrion (Iruur)	01:21:17
1.054. Ioseba Iza (Arb)	01:22:13
1.127. Iñaki Azkona (Iruur)	01:22:37

1.298. Carlos Manero (Alts)	01:23:28
1.333. Alberto del Rio (Alts)	01:23:41
1.375. Aritz Etxeberria (Alts)	01:23:51
1.558. Fran Araña (Arb)	01:24:37
1.650. David Mutiloa (Iruur)	01:24:55
2.000. Gaizka D. Garaio (Bak)	01:26:30
2.586. P.J. Rodriguez (Irañ)	01:28:28
2.720. Iban Verdugo (Etx)	01:28:49
2.883. Imanol Guerrero (Alts)	01:29:16
2.886. J.R. Ramirez (Alts)	01:29:16
3.081. Ibon Paularena (Dorrao)	01:29:46
3.158. J.M. Mendiñueta (Arb)	01:29:58
3.229. Jon Ander Fdez. (Alts)	01:30:11
3.375. Asier Leiza (Arb)	01:30:35
3.524. Victor Isturiz (Iruur)	01:30:59
3.525. Santi Agirre (Iturm)	01:30:59
3.670. Alejandro Pain (Alts)	01:31:25
3.943. Gorka Perianez (Alts)	01:32:05
3.945. Ruben Cantero (Alts)	01:32:05
4.135. Eduard Casanovas (Iruur)	01:32:33
4.524. Koldo Isturiz (Iruur)	01:33:28

5.001. Iban Martin (Arb)	01:34:36
5.016. Diego Alonso (Iruur)	01:34:39
5.901. Asier Lizarraga (Arb)	01:36:31
6.473. F. Guruzteaga (Etx)	01:37:39
6.912. Borja Gonzalez (Alts)	01:38:20
7.687. Jota Rekalde (Iruur)	01:39:36
7.782. Y. (Iruur)	01:39:46
7.868. Iñaki Paniagua (Alts)	01:39:53
7.869. Fer. Montero (Alts)	01:39:53
9.020. M.A. San Martin (Etx)	01:42:00
9.362. Juanxo Azurmendi (Alts)	01:42:34
9.663. Jon Berquera (Zior)	01:43:05
10.074. Gorka Pascua (Alts)	01:43:47
11.812. Iñaki Mauleon (Etx)	01:46:44
15.098. Aitor Etxaniz (Alts)	01:52:34
15.759. Alvaro Rekondo (Lak)	01:53:43
17.669. J.A. Augusto (Alts)	01:57:26
18.309. Aitor Beltza (Etx)	01:58:43
19.789. Eduardo Zuñiga (Iruur)	02:02:06
20.807. J.I. Reparaz (Arb)	02:04:59
21.938. J.M. Flores (Arb)	02:09:03
23.111. Joxi Lazkoz (Etx)	02:15:16
23.566. J.M. Mercero (Unanu)	02:18:41

Emakumeak

46. Aroa Merino (Teguise)	01:09:41
3.867. Erkuden S. Martin (Etx)	01:31:54
5.676. Mainer Iraki (Iruur)	01:36:02
6.124. Amaia Etxeberria (Iruur)	01:36:58
6.486. Maria Goikoetxea (Etx)	01:37:40
8.799. Maitane Txueka (Arb)	01:41:38
10.084. Marian Ijurra (Arb)	01:43:48
13.012. Mari Gwen Davies (Urd)	01:48:52
15.048. Eider Carrion (Iruur)	01:52:28
15.217. Ainhoa Markinez (Olaz)	01:52:46
17.429. Olatz Monreal (Alts)	01:56:56
17.432. Amaia Arangiz (Alts)	01:56:56
17.441. Leire Mugika (Alts)	01:56:57
17.485. Amaia Benjumea (Etx)	01:57:01
21.486. Erkuden Andonegi (Alts)	02:07:09
21.664. Nekane Jaka (Arb)	02:07:47
21.934. Mirian Palacios (Arb)	02:09:02
22.002. Jasone Etxebeste (Lak)	02:09:16
22.055. Nuria Arza (Alts)	02:09:31
22.293. Edurne Lakuntza (Arb)	02:10:37

"Jaialdiaren lengoaia mugimendua da"

LAIDA ALDAZ ARTISTA

Zinetika bideo eta dantza jaialdia sortu zuen Laida Aldaz etxarriarrak duela hiru urte. Atzo hasi zen eta azaroaren 21era arte egingen da Iruñean, Donostian eta Bilbon

Erkuden RB ETXARRI ARANATZ

Zinetika festibalaren hirugarren edizioa hasi zen atzo Iruñeko Kondestable jauregian. Bideoak eta dantza uztartzen ditu festibalak. Laida Aldazek sortu zuen dantza garaikidea Nafarroan gizarteratzeko helburuarekin, eta dagoeneko jaialdia handituz joan da. Iruñean egiten hasi zen eta aurten hiru hiriburutara zabaldu da. Gainera, ikus-entzunezkoen kantitatean eta kalitatean ere nabarmenki handitu da.

Zer da Zinetika?

Dantza eta ikus-entzunezko arteak elkarlanean jartzen dituen jaialdia da; mugimenduak eta kamerak, teknologia eta gorpuzta... Hainbat formatutan ematen da harreman hau: filmak, masterclass-ak, performance-ak edota instalazioak.

Nola uztartzen dira bi arte hauek?

Era askotan eta desberdinetan izan daiteke. Jaialdian erakusten diren obrak ez dira gai baten inguruan. Jartzen zaien gai bakarra dantza eta ikus-entzunezkoak dira eta horrekin artista bakoitzak sakontzen du nahi duen moduan. Guk obrak ikusten ditugu eta egokienak iruditzen zaizkigunak aukeratzten ditugu.

Dantzaren bidez istorioak kontatzen dira?

Bai. Batzuetan istorioak abstraktuagoak dira, beste batzuetan narratiboagoak. Espazioaren eta denboraren arteko istorioa izan daiteke, baita kolorei buruzko istorio bat ere. Edozein istorio izan daiteke. Dantzak eta gorpuztaren mugimenduak kontatzen digu istorioa, ez dute zertan hitzik izan behar.

Zinetikaren hirugarren edizioa da. Arrakastatsua, beraz.

Lehenengo urtean Iruñean egin genuen. Iaz Gipuzkoako Dantza-guneak Donostian egiteko aukera eskaini zigun eta, beraz, Iruñean eta Donostian egin



M. Beloki Iruñeko zinegotzia, Laida Aldaz eta P. Presa Mitxelena zuzendaria. UTZITAKOA

genuen. Aurten Iruñeko Kondestable jauregian, Donostiako Tabakalera eta Bilboko BilbaoArten eta La Fundicione egingen dugu. Geroz eta jende gehiago etortzen da, eta gure jaialdian jakin-mina dute. Gainera, lortzen ari gara gero eta artista gehiagok bidaltzea haien lana: 130 lan jaso genituen iaz eta aurten 1.200 lan jaso ditugu. Salto handia izan da.

Zergatik sortu zenuen Zinetika?

Kanpoan bizitzen 18 urte daramatzat eta bueltatzeko asmoa nuen, baina ikusi nuen oraindik gauza asko daudela egiteko hemen. Orduan pentsatu nuen etorkizunean itzuli nahi banuen ni hasi beharko nintzela gauzak sortzen. Dantza garaikidea izan da nire bizibidea, baina hemen ez zen oso ezaguna eta ez zegoen gauza handirik. Beraz, horrelako festibal batek dantza zein desberdina eta anitza izan daitekeen erakutsi zezakeela pentsatu nuen. Hau da, film laburren bidez jendeari erakustea dantza zer den. Orain, gauza gehiago eskaintzen ditugu ere.

Zergatik da berezia Zinetika?

Alde batetik, hiru herrialdeetan egiten dela jaialdia. Gure inten-

tzioa da herrialde ezberdinetan gauza desberdinak egitea eta herrialde ezberdinetako artistak elkarlanean aritzea. Baita instituzioen elkarlana bultzatzea ere. Xelebrekeri bat da. Guk erabiltzen dugun hizkuntza mugimenduaren lengoaia da eta horrek suposatzen du interpretazioa oso irekia dela. Hau da, guk aurkezten ditugun obretan ez diegu ikus-entzuleari zer ikusi eta nola ikusi behar duen. Askatasuna ematen diegu nahi duena interpretatzeko eta pentsatzeko. Berezitasun hori garrantzitsua da.

Zer suposatzen du zuretzat Zinetika bezalako festibal bat antolatzeak?

Esfortzu handia. Jaialdi independentea da eta urtero laguntzak eskatu behar ditut eta aurrera ateratzeko modua bilatu behar dut. Aurten pertsona batzuk ditut lagun, baina ez da jaialdi oso handia eta ezin ditut pertsona horiek urtean zehar nirekin izan. Beraz, nik gauza asko egin behar ditut. Lan asko, ordu pila bat eta ilusio handiak jarri ditut festibal honetan jendeari dantzarekiko duen ikuspuntua eta burua irekitzeko asmoarekin.

Maitasunaren bidez funtzionatzen duen gramola

'Alicate, la gramola del amor' antzerki eta musika ikuskizuna gaur, Haritza tabernan, 22:30ean

ALTSASU

Gozamenez gazteria eta sexualitateari buruzko programaren barruan Zentzumen gaua antolatuko dute gaurko, Altsasuko Haritza tabernan. *Alicate, la gramola del amor* ikuskizuna izanen da zentzumenak pizten arduraduna. 22:30ean, izanen da emanaldia. 16 urte gorakoei zuzendutako ikuskizuna da.

Alice dos Santos pianojoleak eta Estefania de Paz aktoreak eta abeslariak Alicate taldea osatzen dute. Arte guztiak erabiltzen dituzte *La gramola del*

amor ikuskizunan, izan ere, musikaren historiako abesti bertsio bereziak egiten dituzte. Rockabillya, soula, bluesa, boleroa, swing-a eta kabareta dira haien musika genero kuttunenak. Berezitasun nabarmenena da musutruk aritzen direla, hau da, musu baten truke abesti bat interpretatzen dutela.

Alicate taldearen ikuskizuna xumea eta freskoa da, baina,aldi berean, bitxia eta lotsagabea. Inprobisazioa da emanaldiaren berezitasunetako bat eta horrek naturaltasuna ematen dio.

OSTIRAL BELTZA

DENBORALDIO PRODUKTUETAN PREZIORIK ONENAK

ETXARRIN: ARGIRO OPTIKA

ALTSASUN: ASENSIO MODA - BOUTIQUE EGIN - CALZADOS BENGOTXEA

CORTINAS IZARA - DEPORTES INTXOSTIA - GERTU SAKANA - GAUTXORI TABERNA

IKER KIROLAK - JOSELEN MODA - LARKA - MARI CARMEN - ML MODA HOMBRE

ML MODA MUJER - LASA KIROLAK - PINPILINPAUXA - RAMOS CENOR

ELECTRICIDAD RAMOS - TU TIENDA ESPECIAL - TXIKITXO





Helena Santanoren instalazioa erakusketan. UTZITAKOIA

Artisten arteko mugak hausteko erakusketa kolektiboa

'Hemengo eta gaurko eskultoreak' erakusketan parte hartu du Helena Santano artista altsasuarrak

ALTSASU

Udan egin zuten Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko Aralar-ko muga *Azken muga* arte jaialdia bi herrialdeak artearen eta kulturaren bidez elkartzeko helburuarekin. Xede berberekin antolatuta dute Gotzon Huegun eta Guillermo Olmo artistek *Hemengo eta gaurko eskultoreak* erakusketa Tolosako Aranburu jauregian. Helena Santano artista altsasuarrak erakusketan parte hartzeko gonbidapena jaso zuen. Abenduaren 7ra arte egonen da ikusgai.

"Ibilbide luzea dugun artistak biltzea da, nolabait, helburua". Helena Santanok instalazioak jarri ditu. Antolatzaileen gonbidapena jaso zuen, eta eskultura egiten ez duen arren, obra bat erakustea erabaki zuen. "Egin ditudan azkeneko bi soinu instalazioak erakutsi ditut. Gainera, txoko bat ikusi nuen eta momen-

tuan beste instalazio bat sortzeko inspirazioa sortu zitzaidan".

Erakusketa "bitxia" dela dio Santanok. Euskal Herrian azken hamarkadetan lan egin duten 19 artisten lanak biltzen ditu, "askotarikoak eta ezberdinak". Gaur egungo artea nagusitzen da: eskultura tradizionalatik enbor azalez egindako instalazioa, eta beste hainbat "gauza desberdinak" ikus daitezke erakusketan. Mustutze egunean artistak haien lana azaltzen aritu ziren.

Artisten lana oso bakartia da, Santanok azaldu duenez. "Guk bakarrik ezin dugu gure lana galeria batean erakutsi, eta elkartzeko beharra ikusi dugu". Azken muga bezalako mugimenduak edo Sakanan sortu berri den Artebide elkarte horren erakusle dira: "elkarrekin lan egiten dugunean jende gehiagorengana iristen gara".

Bi altsasuar 1990ko artearen ordezkari, '68aren ostean'

Bilboko Arte Ederretako museoak Euskal Herriko azken 50 urte-tako lanak bildu ditu eta 1990ko hamarkadako ordezkarien artean Dora Salazar eta Txuspo Poyo artista altsasuarren lanak daude. Erakusketa apirilaren 19ra arte egonen da.

68aren ostean. Arte eta praktika artistikoak Euskal Herrian 1968-2018 erakusketa antologikoa

mustu zuten azaroaren 7an Bilboko Arte Ederretako museoan. Euskal Herrian azken 50 urteetako 100 artista ingururen 200 bat lan bildu dituzte, tartean, Dora Salazar eta Txuspo Poyo artisten lanak daude.

1990ko hamarkadan hasi ziren artearen munduan Dora Salazar eta Txuspo Poyo altsasuarrak. Garai horretan artearen diziplinen arteko haustura izan zen; hortaz, artistak ez ziren margolari, eskultore edota argazkilari bezala izendatzen. Artistak ziren.

Tarima Beltzaren 'Madres y pasotas' bihar Lakuntzan

Emakume baten komediak eta komeriak kontatzen ditu antzezlanak. Bihar, azaroaren 17an, 19:00ean izanen da emanaldia Lakuntzako kultur etxean. *La madre pasota* Dario Foren antzezlanaren adaptazioa da *Madres y pasotas* lana. Tarima Beltzak maiatzan mustu zuen Altsasun, eta bihar emanaldia egingen dute Lakuntzan, 19:00etan, kultur etxean. Foren antzezlanak bakarriketa bat da eta Asun Abadek adaptazioa egin zuen hainbat pertsonai sortuz. Jon Barbarin da antzezlanaren zuzendaria.

Kutsu eta kritika soziala duen komedia da *Madres y pasotas* antzezlanak. Emakume baten eta apaiz baten arteko elkarriketan oinarritzen da istorioa, eta, bitartean, flashback-en bidez emakumearen bizitzaren kontakizunak irudikatzen dira. Askotariko pertsonaiak daude eta bost dira aktoreak: Merche Herrea, Nahikari Gonzalez, Marta Diego, Olibi Galparsoro eta Juan Manuel Herrero.



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARAZU

Garabatos

Garabatos taldearen lehen diskoko azaletik isiltasuna eskatzen digu Iratik.

Disko honen ibilbidea 2017an Lakuntzako Udalak antolatutako Pop Rock Sakana lehiaketan hasi zen. Orduan erabaki zuen taldeak bere abesti propioak sortzen hastea, hau baitzen lehiaketan parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintza. Ordura arte, Garabatos taldea beste musika talde batzuen abestien bertsioak eginez sendotzen joan zen, eta abestiak euren eremura eramanez taldearen estiloa eta soinua definitzen joan zelarik. Baina urratsa eman behar da. Sortu behar da, musikariak barruan daramana atera behar da.

Taldeakideak gazteak izan arren, taldearen soinua 70 eta 80. hamarkadako rocka ekartzen digu gogora, oinarri erritmiko indartsua eta

Granizo eta Karasatorre etxean ariko dira Izeta VIII. Sariketan

Irurtzunen eta Lizarran egingen dira gaur bertsolari gazteen txapelketaren bi kanporaketak

IRURTZUN

Nafarroako bertsolari gazteei eta hasiberriei bultzada emateko sortu zuten Nafarroako Bertsozale Elkarrekin eta Baztango Udalak Mariano Izeta Sariqueta duela hamalau urte. Bi urtean behin ospatzen da, eta aurten zazpigarren edizioa egingen dute. Aurtengo edizioaren kanporaketak gaur, azaroaren 16a, ostirala jokatuko dira Irurtzunen eta Lizarran. 20:00etan hasiko dira biak. Irurtzunen eta Lizarran egindako kanporaketetatik hiruna bertsolari sailkatuko dira eta horiek jokatu dute finalean, azaroaren 23an, Elizondon.

Hamabi bertsolari gazteek hartuko dute parte VIII. Izeta Sariketan. Haien artean, Saats Karasatorre etxarriarra eta Idoia Granizo altsasuarrak ariko dira. Irurtzunen ariko dira bi sakan-darrak. Bertsolari gazteek 8ko



Idoia Granizo bertsotan. ARTXIBOIA

handian eta 8ko txikian binaka gaiekin hiruna bertso egin behar dituzte, gainera, bina puntu erantzun behar dute eta emandako hitz batez bertso bana sortu. Lizarran jokatu den kanporaketan gai berdinei aurre egin behar dute bertsolariek.



gitarren protagonismo handia, etxarriarraren ahotsa ikaragarria babestuz.

Iñaki eta Gaizka gitarrekin, Mikel baterian, Asier baxuan eta Irati ahots nagusia.

Guztiak oso gertutik datoz, Etxarri Aranaztik, Urdaindik eta Altsasutik. Hala ere, bat egitea zaila da, eta diskoaren grabaketak hamar hilabete inguru behar izan ditu. Lehenengo etapan lau abesti grabatu ziren eta taldeak diskoa osatzen duten gainontzeko abestiak konposatzen jarraitu zuen. Azken abestiak prest zituztenean, grabaketari ekin genion berriro ere eta orain, entsegu gelan izandako lana eta ilusio guztiaren emaitza dugu esku artean.

"Silencio" Garabatos taldearen zuzenekoaren isla fidela da. Engainurik gabeko

diskoa, zintzoa eta energiaz beteta. Rock hutsa.

Zazpi mozketaz osaturik dago. Bakoitzean sakonduz gero, taldearen eraginak argi gelditzen dira, urrutikoak batzuk eta etxetik iritsiak besteak.

Nortasuna handiko diskoa da. Egun, eskenatoki gazteenetan topatu ditzakegun estilo eta soinuetatik ihes. Garabatosen hautua garbia da, edozein gauzaren gainetik.



Aralar mendilerroa Sakanatik. ARTXIBOA

Aralarri buruzko dokumentala, liburutegien kanpainan

Azaroaren 21ean, asteazkenean, Arbizuko udaletxean Aralar dokumentalaren emanaldia izanen da, 20:00etan

ARBIZU

Azaroarekin batera aurkeztu zuten Sakanako liburutegiek elkarrekin egindako kanpaina: *Sakanako liburutegiak, aterpe naturalak*. Literatura eta natura uztartuko dituzte hil osoan zehar antolatutako ekimenetan, tailerretan eta jardueretan. Asteazkenean, azaroaren 21ean, Arbizuko liburutegia naturaren inguruko dokumentalaren emanaldia izanen da: *Aralar. Mundua leku den lurra* dokumentala proiektatuko dute. 20:00etan izanen da emanaldia, udaletxean.

Aralarri buruz egin den lanik "ikusgarri eta osatuena" da *Aralar. Mundua leku den lurra* dokumentala sortzaileen esanetan. Hain gertu izanik ere, ezezagun diren hainbat aspektu erakusten ditu filmak: haranak, basoak, gaindegiak, larreak, osinak eta haizarteak. Gainera, bertan eta

inguruan bizi diren biztanleen "imajinarioa" ezagutzeko aukera dago ere. Mendilerroa babestearen garrantziaz hitz egiten dute ere dokumentalak.

Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel kazetariak sortutako istorioa da dokumentalaren oinarria. Hortaz, dokumental bat baino gehiago ere bada. Fikziozko istorioak adituen azalpenak josten ditu; mendilerroaren geologiaz hitz egiten dute, ur sistemaz, faunaz eta landareez, historiaz, ondareaz baita kudeaketaz ere azalpenak ematen dituzte adituek.

Iban Toledo, Garazi Auzmendi, Ion Fontenla eta Aloña Jaurregi dira *Aralar. Mundua leku den lurra* dokumentalaren zuzendariak. Musika Pello Ramirezek sortu du. On Produzkoioak ekoiztetxeak eta Landarlan Ingurumen Elkarteak egin dute filma.

Aterpe naturalak

'Liburutegiak, aterpe naturalak' kanpainaren egitarauak aurrera jarraitzen du eta gaur, hainbat herritan, ekimen ezberdinak izanen dira. Esaterako, Altsasun zonaldeko sendabelarren tailerra 17:30ean izanen da eta Ziordian ukendu tailerra, 18:00etan.

Olaztin naturaren inguruan ilustrazioak eginen dituzte Morkotsekin, gaur, 18:00etan. Astelehenean Olaztiko pagoak ezagutzeko aukera izanen da Beltx pertsonaiaren eskutik. 17:00etan izanen da tailerra.

Asteartean Beltx-ek Irurtzunera eginen du bidaia bertako hegazi-fauna ezagutarazteko. 17:00etan izanen da tailerra. Altsasun Juan Goñik "Los bosques que llevo dentro" liburuaren aurkezpena eginen du, 19:00etan. Asteko egitarau osoa: www.guaixe.eus-en.



'Sinergia 3.0' ikuskizuna. IORTIA

Da Vincin oinarritutako zirku koreografikoa

Nueveuno konpainiaren 'Sinergia 3.0' ikuskizuna izanen da igandean, 17:00etan, Iortian.

ALTSASU

Malabareak, objektuen manipulazioa eta dantza uztartzen ditu *Sinergia 3.0* ikuskizunak. Sinergia sortzea da, hain zuzen, Nueveuno konpainiaren xedea. Leonardo Da Vinci artistan eta asmatzailean oinarritu dira zirku garaikidea osatzeko, hau da, "asmatzearen" irudia hartu dute oinarri. Asmakizunaren eta ikerketaren bidez zirkua egiten dute. Igandean izanen da emanaldia, 17:00etan, Iortia kultur gunean.

Ikuskizun "bisuala eta samurra" da, Nueveuno konpainia madrildarraren kideen esanetan. Oreak jolasak eta teknologia uztartzen ditu, esaterako, malabareak egiteko mazed argia eta koloreak dituzte, eta musikarekin batera doaz. Beste hainbat materialekin ere jolasten dute ere figurak sortzeko. Hortaz, egurretik metalera pasatzen dira.

Zirku ikuskizun bat da, zirku garaikidea edo koreografikoa izendatzen dute sortzaileek, baina istorio bat ere kontatzen dute. Ikuskizun guztiaren haria pertsonen arteko harremanak dira: "persona bat taldetik baztertzen dute, baina pixkana sartzen joaten da taldeko kide bihurtzen den arte".



Thierry Biscary "Manez". UTZITAKOA

"Proiektu honetan Manez naiz, oso lan intimoa da"

Manez eta Kobreak taldearen kontzertua izanen da bihar, azaroaren 17an, 19:30ean Iortia kultur gunean

ALTSASU

Manez Thierry Biscary musikiariaren aitaxirenen etxeko izengoitia zen. Proiektu berriarekin hasi zenean izen hori hartu zuen abiapuntu bezala. "Hainbat taldetan kolaborazioak egiten ditut eta han Thierry naiz, baina proiektu honetan Manez naiz". Hortaz, proiektu "oso intimoa" dela azaldu du Biscaryk. Manez eta Kobreak taldeak bihar kontzertua eskainiko du Iortia kultur gunean, 19:30ean. Berria egunkariak, Altsasuko udalak eta Sakanako Mankomunitateak antolatuko dute emanaldia.

Barnetik heldu zaizkion "kantak, melodiak eta musika" dira Manez eta Kobreak taldeak eskaintzen duena. "Badira oso bertsoak diren kantak, kontakizun soil bat kontatzen dutenak". Parisera bizitzera joaten den neska baten istorioa aipatzen du Biscaryk: "han aske sentitzen da, eta herrian, aldiz, ez da hain aske sentitzen nahiz eta herriarekiko lotura handia izan". Abesti "alaiak" eta "tristeagoak" daude Manez eta Kobreak taldearen errepertorioan.

Biscary Bolbora, Kokin eta Kalaka taldeetan egon da, besteak beste, eta bakarlarri gisa aritzea erabaki zuen "Kalakareko erritmo handia jarraitzea zaila egiten zitzaidan". Gainera, gauza berriak probatzeko "heldutasunera" iritsi dela esan du Biscaryk. "Kalakan utzi nuenean erabaki nuen musika ez nuela utziko eta zerbait xumeagoa eginen nuela".

Melodiak aspalditik ditu Biscaryk buruan. Letrendako, aldiz, "laguntza handia" izan du, izan ere, "olerkariengana" jo du: Uxue Alberdik, Amets Arzallusek, Xabier Euzkitzek, Jon Maiak eta beste hainbat idazlek idatzi dizkiote letrak. Hala ere, proiektu osoa bezala Behe Nafarroan oinarrituak daude; Iparraldeko istorioak kontatzen dituzte.

Kaleko musika

Behe Nafarroaren eragin nabarmena abestien doinuaren dago. Ahotsarekin batera metalezko instrumentuak aritzen dira: Kobreak. "Bidebazterreko pertsonaiaetan inspiratu nahiz proiektua egiteko, eta kobreak oso herrikoak dira". Kaleko musikaren kutsua bilatu du Biscaryk: "musika erdi fanfarre erdi txaranga da, baina, aldi berean, antzoki batean entzun daitekeen kamara musikako talde bat gara".

Musikariak "casting" bidez aukeratu zituen: "Internet bidez ikusi nituen eta haiengana joan nintzen. A capela abestiak egin nien eta konbentzitzen saiatu nintzen". Hortaz, hautaketaren ondoren Bixente Etchegaray, Laura Etchegoyhen, Ana Telletxea, Vianney Desplantes eta Mintxo Garaikoetxea musikari-erri, osatu zuten taldea.

Emanaldi "berezia" eskainiko dute bihar Altsasun: "dantzatzeko eta entzuteko doinuaren bidez" Behe Nafarrora "bidaia" eskainiko dute. Hortaz, herrialdearen argazki proiektioa eginen dute musika jotzen duten bitartean.



Patxi Rabaz arbizuarra, Eva Leatxe lakuntzarra, Mikel Azkona urdiaindarra eta Sonia Maria eta Elena Carretero arbizuarrak belarriprest izanen dira.

"Hizkuntza berdintasun egoera ahalbidetuko da"

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra arte Euskal Herriko herri askotan. Bi rol egonen dira: ahobiziak eta belarriprestak. Patxi Rabaz, Eva Leatxe, Mikel Azkona, Sonia Maria eta Elena Carretero belarriprest izanen dira

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

1 Zer da belarriprest izatea?

Eva: Hamaika egunetan, Euskal Herriko herri askotan, euskaraz entzuteko konpromisoa hartu dugu. Ahobiziek txapa bat eramango dute eta belarriprestak beste bat eramango dugu. Horrela jendeak identifikatuko gaitu.

2 Beraz, euskaraz entzuteko konpromisoa hartu duzue. Eta hitz egiteko?

Saiatuko gara, bai.

3 Zergatik zarete belarriprest?

Mikel: Nik izena eman dut gure gizartean oso normalizatu dagoelako euskaldun bat eta gaztelaniadun bat dagoenean automatikoki gaztelaniaz egitea,

euskaraz egiteko aukera dagoenean.

4 Euskara ikasleak zarete?

Bai. Gehien bat etxean haurrekin egiten dugu.

5 Nola hartu duzue erronka?

P.: Erronka berezia da. Modu honetan erakutsiko diogu jendea-ri euskaraz ulertzeko gai garela.

Konpromisoa beteko dugu, ziur.

6 Normalean jendeak nola egiten du zuekin?

Elena. Haurrekin euskaraz eta kalean gehiago gaztelaniaz.

M.: Etxean haurrekin beti euskaraz eta emaztearekin erdizka. Faltan botatzen dut kalean euskaraz gehiago hitz egitea. Uste dut ezinbestekoa dela.

7 Euskal Herria bezalako egitasmoak euskararen normalizazioan lagunduko duela uste duzue?

Sonia: Nik uste dut baietz. Espero dugu baietz.

Eva: Bai. Gainera, aukera hau guretzat ikasteko modu bat da. Euskaraz entzuten badugu gehiago ikasiko dugu, eta, pixkanaka, euskaraz egitera ohitura hartuko dugu ere.

M.: Oso aukera polita da euskaraz hitz egiten kostatzen zaigu-

noi hitz egitera animatzeko. Entzuten dugunean beti gelditzen zaigu zerbait eta ikasten dugu. Ohitura sortzea da.

8 Baina zuek egunero zarete belarriprest.

Bai. Saiatzen gara.

Elena: Lehendabiziko urteak hemen Arbizon beti gaztelaniaz egiten zidaten eta behin euskaraz ulertzen nuen galdetu zidaten. Baietz esan nien baina lotsa ematen zidala hitz egitea. Esan zidaten egiteko, ez zela ezer pasatzen.

Sonia: Niri berdina. Jendeak badaki ez dakidala ongi euskaraz, ikasten ari naizela, eta esaten didate lasai aritzeko. Saiatzeko. Egunero praktikatzen dut.

9 Beraz, Euskal Herria ere hitz egiteko lotsa kentzeko baliagarria izango da, ez?

Eva: Barnetegi batean bezala izango da, ez? Zerbait ulertzen ez badugu esango diegu mesedez beste modu batean azaltzeko ulertu arte.

10 Etorkizunean jarraituko duzue?

Bai. Ohitura sortzea da.

11 Zergatik da garrantzitsua belarriprest-ak egotea?

P.: Euskaldunek gurekin euskaraz hitz egiteko lotsa galduko dute. Errespetuagatik-edo gurekin gaztelaniaz egiten dute, baina txapa ikustean euskaraz ulertzen dugula jakingo dute eta errespetu edo lotsa hori galduko dute.

M.: Hizkuntza berdintasun egoera batean egotea ahalbidetzen du. Buelta ematea da, hau da, "esfortzua" elkarbanatua izatea. Euskaldunak ez izatea beti amore ematen duenak.

